

# EUSKERAZAINTZA

## EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

XVII Zenbakia.

1991

Urrilla-Gabonilla

### AURKIBIDEA

Orr.

Esaldi jatorrak.- M. Oñatibia. (Barruko azalean).	
Akesolo tar Lino Goian bedi.- Gaztañaga'tar J. ....	1
Izkuntza eta eziketa.- Anes Arrinda. ....	4
Alkar lagundu bear.- Umandi. ....	14
871'n Araba'ko larruki bat.- Latiegi'tar B. ....	17
Aita Lino Akesolo Bertso-zale.- Alta Onaindia. ....	23
"Bear" eta "Nai"ren tokia.- Kamiñazpi. ....	27
Liburu berri bat eta euskerakiko okerbideak.- Jakakortajarena .....	31
Goi yakintzaruntz urbiltzeko naimena.- Urrestarazu A .....	36
Euskera dala eta lastoa astintzen.- B. Madina .....	39
Aetzen uskaraz.- Josu Cabodevilla. ....	40
Euskerazaintza'ren araudia. ....	48
Euzkerari buruzko argibideak.- Arbasoen I. zaleak. ....	53
Euzkera garbitzen.- Arbasoen I. zaleak. ....	58
Erderakadak. ....	60
Euskal senik ez daigun galdu.- A. Zubikarai. ....	62
Zazpi izarrak. Olerkia.- Ugarte'tar Martin. ....	64
Urgeldian.- I. Zubiri. (Kanpoko azalean).	

Zuzenbideak:

**GETARIA 21 - DONOSTIA**  
**C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

# ESALDI JATORRAK

- Anaia lajster etorriko ote da? ÑAIKO LAÑ...
  - ASPALDI BATEAÑ, DIRUZ OSO GAIZKI IBILLI ZIRAÑ; BAIÑA ORAIN DIRU-TAÑ daude.
  - Irakurtzen ari zeran liburua atsegiña al da? AIÑ ATSEGIÑA...; BUKATU ARTERAIÑOKO OÑIK ez det...
  - Esna al zaude? Bai! -Lo gutxi egiña?- Ez-bal Ñaiko LO-EGIÑA ÑAIZ!
  - BESTETAÑ EZ BEZELA, gaur aldarte onekoa dago.
  - AUÑDI-TXIKIAÑ alde aundia dute...
  - A ZER JATIA EGIÑ DUTEÑ...
  - Bein illundu ezkerro, IÑOR ASKO ez da ikusten. IÑOR GUTXI ikusten da.
  - Zer galtza jantziko ditut? ÑOÑ ETA urdiñak jazten ez dituzun...
  - Alegiñak egin zitun, baiña EZIÑ BESTEAÑ AMOR EMAÑ BEAR IZAÑ ZUAN.
  - Au da automobil pillala! ÑUÑ UTZIRIK ez dago!
  - ERDIZ-ERDI asmatu dezu.
  - Billerara bai al zoaz? Ba-noa, baiña JOAÑ BAIÑO EZ JOAÑ NAIAGO NUKE...
  - OÑDO ERE, OSO OÑDO DAUDE gure seme-alabak.
  - EGUÑ-ARGIZ egin bearreko lanak dira oiek...
  - Etxe bat eraikitzen aurrera doazela ikusita:
  - Au gora ba'doa!
  - Ez! Onek GOYAK, GAIÑAK artu ditu.
  - ALKAR EZAGUTZEÑ al dezute?
- Euskal Telebistan Azkonarrataz irudiak ematen ari zirala, arerio asko zituala esaten ari zan, eta azkenean:
- Azkonarrak ZIRKUÑSTAÑZIEÑ BIKTIMAK dira.

**Manu Oñatibia**

EUSKERAZAINTZA

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition. Bilbao



# AKESOLO'TAR LINO, GOIAN BEDI!

*Karmeldar euskaltzale jakintsu ta Euskerazaintza'ren Lendakaria il da 80 urte ongi beteen gaillurrean*

**GAZTAÑAGA'tar JESUS'ek**

Urrutizkiñez etorri zait albistea, albiste illun eta ustekabekoa: "Aita Lino il da". Bere inguruan, gure artean eta euskaltzale askoren aotan, "Aita Lino" esanda, guztia esanik zegoan. Ain ezaguna, maitea ta begirunez artua baigenuan.

Oraintxe amazapi egun elkarrekin giñan Larrea'n Euskerazaintza'ren Batzarrean eta ondorengo bazkarian. Egia da, 80 urte ez dirala zama ariña, ala ere nork uste bear zukean geiago ikusiko ez genuanik?

Egun auetan dira 20 urte, Liturgi-euskeralpenak egiten jardun giñanetako 18 lagun apaiz Erroma'n izan giñala Euskalerra osoko bost Gotzaitegien lan-ordeko opariz. Eta aste ontan, 19'an, Loiola'n elkartzekotan giñan, A. Lino ere tarteko genuala... Orra orain zazpigarrena ill

## **Bizitza bete-betea**

Dima'ko Oba auzoan munduratu zan 1911'ko Jorraillaren 7'an "Akesolo" baserrian. Zornotza'n, Markiña'n eta Begoña'n burutu zituan eliz-ikasketak, eta 1934'an karmeldar apaiz egjiñik, Zornotza'n jrakasle jarri zan. Beste ikasketak batzuk bere kontura egin bear zituan, ongi kostata egin ere: Gudarien kapellautzakoak eta Franco'ren espetxeetakoak, alegja.

Irakasletza ta "Karmen'go Argia" aldizkariaren zuzendaritza utzirik, euskogudarien Kapellau ibilli zan Otxandiano, Legutiano, Lekeitio, Matxitxako, Lezama-Barandio ta Santo Domingo erri ta mendietan zear. Urrengo iru urtez espetxea izan zuan bere bizileku ta ikastetxe Begoña'ko Karmelo'n asirjik, Ñanklares'en, Palencia'ko Dueñas'en eta Sevilla'ko Karmona'n, 1940'an askatu zuten arte.

Amasei urteko espetxe-zigorra eman zioten gudalburuek, Kapellau zanez "rebeljón militar" egiten lagundu zualako ta... bere ardurapeko aldizkarian nazionalismoa zabaltzen ornen zualako. Urteak ez zituan alperrik galdu, italierra, inglesa ta alemaniera ikastero jo bai-zuan.

Zenbait tokitan ibilli ondoren, 1948-1969 urteak Begoña'n burutu zituan teologi-ikasleen irakasle. Urte aietatik zituan artu-eman estuak Azkue aundia-rekin. Donostia'n eta Markina'n karmeldaren buru izan zan.

"Euskaltzain Oso" izendatu zuten 1963'an, euskal-senaz eta jakitez ongi jantzia bai-zan ordurako, Azkue'k aitor zezakeanez. Baiña ariñago jantzitakorik bazan Euskaltzaindia'n sartzeko irrikaz. "Atzeko atetik, sartu danik bada or", esan oi zuan irriparrez. Eta... barruko naaste borrokak eurentzaz utzirik, uko egin zion "karguari". Gero "Urgazle" edo "Euskaltzain laguntzaille" izena eman oi zioten, eta benetan laguntzaille ta langille izan ere.

"Kardaberaz Bazkuna" 1970'ean bir-sortu zutenean, bazkide egin zan eta Bazkun artatik "Euskerazaintza, Euskeraren Erri-Akademia" sortzean, barnean zan Akesolo aita. Akademia onen buru edo Lendakari jzateko, nor jakintsuago ta ezagunago, nor egokiago Akesolo baiño? Aita Lino izan da, beraz, Euskerazain-Burua asieratik orain arte.

### **"Idazlerik onena bizkaieraz"**

"Bizkaieraz idazlerik onena, Akesolo da" esateko, ni ez naiz gai ta ez da nerea aitopen ori. Salmoen euskeralpena ta beste idazlan geiago ere ongi ezagutzen zizkion ORIXE aundiari entzun nion, eta oso gogoan artu.

Euskaltzalea ta liburuzalea izan da beti. Ñork jakin antziñako zenbat liburu zaar irakurri ta arakatu dñtuan, euskerazkoak bereziki? Galdutzat jotako idazlan asko aurkitu, aztertu, karmeldarren Begoña'ko liburutegia aberasteko jaso ta ezagutzera atera dituanak ere, zenbat ote dira?

Ikertzaille zorrotza izan da, billa asitakoan gauzak azkeneraiño garbitu ta argibidetu arte etsitzen ez zuana. Adibidez, ain juxtu jil onen 4'an D.V. egunkari ontan argitaratu nuana lekuko: Azkue aita-semeen idaztiak zeifien sakonki aztertu zituan esanez, eta ez alde-aldera.

Euskal-aldizkari ta egunkaririk ez da izango argian, Akesolo jakitunak zer-bait argitaratu ez duanik, gudaldi aurretik edo 1936 baiño leenagoz asita. Gai geienetaz idatzi ere, politikaz izan ezik, baiña nagusienik erlijio-inguruko gaie-taz eta nolerebait euskerazi zegozkionetaz.

Bizkaiera landu ta aberatsa zerabilkian bere jdzlanetan, baiña aldi berean beste euskalkietan oituek ere aixa ulertzeko erakoa. Euskal-sena zerion beti Akesolo'ren edozein idazkiri. Ezagutu, berriz, euskalki guztietako euskera eza-gutzen zuan ongi baiño obeki, azken lztzgia lekuko.

Bederatzi liburuki edo ale marduletan argitaratua dan "Diccionario de Autoridades del euskera" ez da txantxetako lana. Azkue aundiaren lztzgi iru-koitza oiñarri arturjk, Sota jauna asi zan ugaritze ta aberaste-lana egiten. Ordu ta urte askotako jarduketa nekagarriaz aspertu ta etsi gabe jarraitu bearko zuan, baiña or dago lztzgi bikaña.

### **Omenaldiz ooretua**

"Idazlan guztiak" liburu mardul bitan bilduta argitaratu zizkioten orain bi urte, guztira 1.602 orrialde. Ez da omenaldi txarra! Geroz baditu geiago langille aspergaitzak. Idazten ez ba'da, irakurtzen aurkitu ta atrapatu baldin ba'lu eriotzak, ez nintzake gutxienik ere arrituko,


Azken-urteotan izan du bere lan bikaiñen aitopenik, zor aundia baizion Euskalerrriak. Bizkai'ko Elizbarrutiak 1984'an eskeiñi zion elizgizonen omenaldia, Kerexeta, Onaindia ta Puxana'z batera. "Labayru Ikastegia" elkarteak omendu zuan urrena 1987'an Derio'ko Apaizgaitegian.

Eusko Jaurlaritzak 1989'an "Euskal Letretako Merezimenduzko Saria" opa izan zion, euskeraren alde bizitza osoan egindako lanen aitopen. Bizkai'ko Aldundiak 1989'ko jorraillaren 7'an omendu zuan aundikiro.

Euskerazaintza "Euskeraren Erri-Akademia"k eta "Euskerazaleak" Elkarteak Dima'ko Udala ta erriaz batera, 1989'ko Uztaillaren 1'ean egin zioten omenaldi jendetsu ta biozti sarkorra bere jaioterrian.

Doai ugari agertu ditu bere bizitzan, egitez azaldu ere, eta ez itzjario zaratsuz: Eziketa onaren aldekoa, irakurtzale purrukataua, jakinduria zabalaren egarriduna ta jakingura aundiko asekaitza, gizaki ta giza-lanen maitalea, Euskalerrria ta euskera lanaren alnez jasotzen saiatua, egi-zale benetakoa, s;nistun jainkozale zintzoa...

Goian bedi betiko atsedeen zoriontsu betean. Eta emen adiskide bat galdu dugunok, betikotasunetik laguntza;lle onak babestu gaitzala.








Ikastolan tonto utsak.

Ipiñi egin bear da, gero aul



Onelakoxeak dituzu Españian zear zabaltzen dituzten gure berriak...!

## RAMU

RAMU Indiako hospital batean il zan Apirillaren 20'an 1968'garren urtean, 23 urte zituela. Baserritar batzuek arrapatu zuten 1954'eanean, 9 urte inguru zituela, Luchnow erriko trenbidean.

Itzik gabeko ezkontza eta ezikera nai izan dute aur euskaldunentzat; baiña, itzik gabeko ezikera, zer litzake? Aur euskaldunak erderaz ezitzea, itzik gabe uztea da. Eta itzik gabeko kultura-eziketa animaliena da. RAMU izeneko mutikoaren bizikerak argitzen digu arazo au garbi.

RAMU ez zan irudipen bat izan, benetako mutikoa baizik. Medikuen iritzira ez zituen 9 urte baiño geiago izango, trenbide batean, igesi doala, arrapatu zutenean.

Lau anketan zebillen ukalondo eta belaunen gaiñean. Besagaiñak eta iztar-  
rak zitun luze eta indartsuak; eskuak eta oiñak oso melar eta indarge, sekulan  
ezertarako erabiliak izan ez ziralako. Ukalondo eta belaunetako azala oso  
gogorra eta lodia.

Otsoen artean ezja, ez zan otso, gizona baizik, giza-aurpegia zeukanez.  
Baiña ez zekien izketan egiten. Uluak egiten zitun, otsoen antzera; gauerdian  
batez ere.

Gorputza zeukan beltzarana eta illetsua; begietan, berriz, gizonenganako  
bildur ikaragarria erakusten zuen.

\*\*\*

Zutik ibiltzen ikasteko garaian, ez zion iñork zutitzen lagundu eta bere ingu-  
ruan bizi ziranak, guztiak lau-ankan zebiltzen eta berak ere lau-ankari eutsi  
zion. Ez zan sekulan zutitu. Oso bizkorra ornen zan laisterka egiten ukalondo  
eta belaun gajñetan.

Bere maixuek ez zuten eskurik erabiltzen jateko, agoa baizik eta berak ere  
orixe ikasi zuen: "zer ikusi, ura ikasi". Ortzak zorroztu zitzaizkion oso.

Jan, berriz, aragi gordiña bakarrik. Ikusi ezkeroz bere onetik ateratzen  
ornen zan; baiña, frutarik edo barazkirik ezertxo ere ez. Aragi egosirik ere ez.

Arrapatu zutenean, bildurrarekin batera, sua ta gorrotoa zerion begietatik.  
Esnea miaztuta eraten zuen eta argiak kalte egiten zion, gauez ibiltzen oituta  
zegoenez. Bere gorputza garbitzeko urik, ez zuen bistan ikusi nai, ezta soiñe-  
korik gorputzean jasotzen.

\*\*\*

Hospitale batean artu zuten; Sharma jauna zan buru eta bere laguntzaillea  
Manson-Bahr jauna; baiña, oietaz gaiñera, beste mediku sikologo askok ere  
ikusi zuten RAMU.

Sendagillearen asmoak auek ziran: mutilla bere onera ekarri eta izketan era-  
kutsi; gero bere agotik otsoen bizimodua alde batetik eta bestetik, mutillaren  
eta otsoen euren arteko ar-emanak ikasi.

Zutik ibiltzen ere erakutsi nai izan zioten; baiña, ez alperrik! Bederatzi urtez  
okertuta erabilitako gorputza, zeinek zuzendu? Ezin izan zuten; alegin guztiak  
alperrik.

Berdin gertatu zan izkerakin: amalau urte hospitalean bete arren, ez zuen  
itz bakar bat ere ikasi. Ez zitzaion bururik argitu. Garraxi egin eta ulua jo; ortz-  
karrakak atera ere bai... Eta, bildurra beti begi-barneetan.

\*\*\*

Ez zuten ezer onik atera. Aizkenerako mutilla arrapatu zuten egunean baiño  
okerrago ornen zegoen, epilepsiak jota. Jostailluz inguraturik egon arren, ez  
zion ezertxok ere pozik ematen. Iru alditan ikusi ornen zuten biotz-unkituta:  
sorora eraman zuten batean, bere aurrera txakur bat ekarri ziotenean eta  
otsoaren uluak entzun erazi ziotenean.

Lan guztia alperrik izan ote zan?

Garrantzi aundiko argi-bide batzuek atera zituzten.

\*\*\*

Lenengo erakutsia:

Izketan ikasteko aukerako urteak, baditugula gure bizitzan eta, izketan ikasi  
gabe, urte oiek pasa ezkeroz, gero alperrik dala ekitea. Oso zailla eta oso gai-  
tza dala gerora jkastea.



Giza-gogoaren edo giza-animaren azitzea eta ezitzea etetzen bada, eten ori ez dala gero sekulan konponduko. Betirako etenda gelditzen da; ez bait dago gero unerik utsune ori betetzeko.

Oker ori egin dute umetxo baserritar euskaldunekin. Escuela Nacionalera daramaten sei urteko umetxo orrek badu bere izkuntza eta eziketa baserrian gizaldietan zear gordetako jakinduriaren bidez emana. Eziketa ori etetzen da, liburuetakokultura berri baten bidez, umeak ez dakien izkuntza erdaldun batean emana. Escuela Nacionalean egindako utsunea ez da gero sekulan beteko. Etxeko euskera zapuztu eta izkera berririk ikasi ez. Ta ikasten bada, okerrago, euskeraren kaltean izango danez.

**Ikastola orretarako etorri da: umetxo euskaldunen aziketa eta eziketa ausi ez ditezen; utsunik egon ez dedin.**

Besterik zer ikasi zuten RAMU giza-joarekin? Amalau urteen buruan ez zuten aurrerapenik egin berarekin. Lan guztiak frakaso utsak izan ziran. Alaz ere sendagille oien lanak ez dira alperrikakoak izan. Erakutsi ederrik atera dute ustel orretatik.

**Ara zer dioten: Umetxoak bear bezelakoak ateratzeko, bear bearrezkoak ditu, bere lendabiziko urteetan, arrematan aukeratu:**

Ume eta bere ama, ume eta bere iñude, ume eta beste umeen arteko ar-emanak. Ar-eman oien faltan, umearen personalitate edo gizamenik bear bezala erneko ez dalako. Ar -eman oiek gabe umearen biotz-sentimen, buruadimen eta beste giza-almen bereziak ernetzeke geldituko dira. Orregaitik, gaur-eguneko zenbait orfanatrofioetan, iñudeak ekarri oi dituzte umetxoei tjtia emateko, areman oiek umetxoaren <sup>\*\*\*</sup>bizian falta ez ditezen.

RAMUren okerrak gorputzekoak eta espitutukoak izan ziran. Gorputza okertu, ukalondo eta belaunekin ibiltzen oitu, janariak agoakin artu, jantzien ordez illea gorputzean, gauez ibilli eta sentzumenak bizkortu... Animalki bizi eta animalki azi eta ezi... Ez itzik egin, ez giza-sentimenik, ez giza-pentsakerarik... Ezer ere ez. Bere garaian ikasi ez zirelako... Orra familiaren eta eskolaren garrantzia umetxoentzako... Garrantzi izugarria azikerako eta ezikerako.

Eskola erdaldunetan umetxo euskaldunen egoera izkera gabeko egoera. Egoera larria benetan. RAMU asko sortuko zitun gure artean Escuela Nacionalak, ume oiek beuren familien babesaren izan ez bazuten. Eskola oiek famili auskaldunaren osagarri eta laguntzaile izan bearrean, etsai gertatu izan dira urteetan zear.

## Sakabiko Ale

Uda-galdatan etxean agertu zait, gibelurdira eta urretxak pardeltxo batean eta ago zabaleko irriparra ezpainetan. Ogei urteko mutiko lerdena, zuma bezin biguna gerria, gizenik gabeko giarrak, ia bi metro luze:

—Kaixo, aspaldiko! Bizi al gera?

—Bai orixe! Lana billatu det!

—Lana? Baserritik kanpora?

— Bai, galdaragintzan.

— Galdaragintzan...!

—Badira sei illebeta eta aurreragorako konponbidea eginda daukat. Ez dakizula nun ibilli geran anaia eta biok?

—Ez dakit.

—Italian! Gazeitzit Milanera aidean eta andik bi orduko bidean automobillean.

—Ñora baiña...?

—Venezia ingurura.

—Beraz, Milan eta Venezia ikusi dituzu?

—Orixe esaten zidan amak, baserritik ez nitula sekulan jkusiko. Eskerrak galdaragintzan asi nintzala...

—Lanera joan zerazte?

—Sei euskaldun gure lantegitik eta amaika aleman bildu gera galtzairua urtuteko labeari azpiak ipintzeko mogimentudunak.

—Arrane, arranea! Sakabi baserriko semeak Italian lanean alemaniekin konpetentzia...!

\*\*\*

Histori zeatza esaten ari naiz eta ondoren datorrena ere alaxe da. Sakabiko Alek RAMUren antza emango zuen, Erdaldun Eskola bakarrik izan balu bere ezikeran. Bazuen, ordea, baserria eta bertan famili bat, senitartekoak: gurasoekin batera amama, anaia eta osaba. Guztien artean osatzen zuten Aleren giroa arratsaldeko 7etatik goizeko 7etara. Egunsentian (neguan lenago) asten zitzaion bere eguneroko gurutze aztuna. Kafetxo bat artu, besterik ez zion barruak artzen, eta erdal-eskolara, tutjk ulertzeke, señoirta "mutur zorrotz" baten aurrean eguna pasatzera. Izena berorrek ipiñi zion; egoki asko ipiñi ere. Gogor artzen zitun umeak; batez ere erdera ez zekiten baserritar euskaldunak.

Mutikoak, zortzi urte betetzeko zegoen mutikoak, bere burua zapalduta ikustean, alegiñak egiten zitun zapalketa artatik irtetzeko. Agiñak eta ortzak zitun iges-bide: amaika aldiz joana zan sendagilearengana ortza ala agiña ateratzera. Aitzakj orrekin egun bat gutxiago eskolan. Amaika aterata zitun nik ezagutu orduko. Goiz artan, zortzirak inguru, erriko kale erdian ikusi nuen bost irakasle aurrean zituelarik.

Maixuak Aleri:

—Qué tienes, Alejandro?

Alek kopeta illun eta negarrez, ago-zapaia erakutziz:

—Mal aquí.

Tarteko sartu nintzan:

—Zer dezu, ume?

—Agiñeko miña. Ñik Itziarrera nai det.

Baimena eskatu nien irakasleeri mutikoa eraman aal izateko. Baietz, eraman nezakeala. Ume gizarajoak aurpegia zuan zimurturik eta burua bularrean sartuta. Aldiz-aurretik xaartutako aguretxoa zirudin. Inguruak zapaldutako aurtxoa. Eta, zortzi urte betetzeko!

Joan giñan Itziarrera baiña an ez zeukan iñor senitartekorik.

Onela esan nion:

—Ara, Ale, egia esan: emen gelditu ala etxera joan?

—Goazen etxera; bestela biar ere berdin ibilliko gera. Atzo atera zidaten agin bat eta orain bestea daukat gaixo.

Eraman nuen Lastur aldera eta ondoren Ugartemenditik aurrera ia Izarraitzeraiño. "Baiña, mutiko au nun bizi da?" nion neure buruari. Amar kilo-

metro eginda genduzkan ete bere etxea agertzeko oraindik. Mingaiña, ordea, askatzen asi zitzaion: inguruko baserri guztien berri ematen asi zitzaidan. Une aretan egin zan bere buruaren jabe. Gezurra dirudi umetxo au eta nik kalean zapaldurik ikusi dedana, biak bat izan leikeenik. Mendi-erpiña zapaltzean, lumak arrotu zaizkio. Onela ekin zidan:

—Aizu, goiko tontorrean gurutze bat dago eta goazen ara.

Asi nintzan gora; baiña, laister gelditu nuen automobilla.

— Ez gelditu. Segi aurrera.

—Mutil, mutil. bidea emen amaitzen da.

—Ez aldezu ikusten bidea aurrera dijoala?

— Ori ez da bidea, ordea...

—Ortik aurrera ere joaten dira, bai. Sartu naiz basa arteko bide erdi-urratu batean. Ura, lokatza eta arri artean zuloak galantak.

— Ale, nora ekarri nauzu?

—Jodé, ez du azpiak lurtean joko, ez. Zurea baiño bajagoak emendik ibiltzen dira beintzat eta...

Ñik bildur nuena asmatu dit, an beeran, argigabeko umetxoa zirudien mutiko onek. Malkorrean aurrera joan nintzan eta, azkenik, ordekea eta zabalgunetxo bat. Bertan gelditu giñan. Mendian gora, burua tente, eskuak prake-tako boltxikuetan... Gizona dirudi. Au al da nik erritik ekarritako mutiltxoa...? Erdal Eskolak zapal dutakoa baserri eta mendiak suspertu, alegia.

— Zer maixu dituzute eskolan?

—Ñik ez daukat maixurik; gurea señoritea da.

—Ona al da?

—Bai, ona da; baiña, ni estu artzen nau.

—Etixeraiño eramango zaitut.

— Ez. Oñez joango naiz. Maldan beera dago.

Eskua eman diot:

—Agur, Ale, lagunak izango al gera?

— Bai.

Beste gabe or doa gain-beera bere etxeruntz. Erriko kalean ikusitako umetxo zimeldua, ona eman arro-arro. Etxerako bide guztian burua oldozpenez beteak ekarri nuen. Zer bizimodu estua daramaten gure baserrietako umetxo euskaldunek erdal-eskoletan. Areago oraindik gaur eguneko eskola-batuetan. Auzoko eskola kendu zioten Aleri, an urrunean, urrutiko errian, aundi bat jasotzeko. Eskola bederatzietan asten zaio eta garaiz ara joan aal izateko, zazpiretan jeiki bear ogetik. Arratsaldean, gau illuna neguan, etxera orduko zazpirak.

Amabi ordu etxetik kanpora.

\*\*\*

Urte bete pasa da eta orain Ale Ikastolan dabil eta bertan bazkaltzen du. Bazkal ondoren beti egiten dit bisitatxoren bat. Alek neri:

— Mutur Zorrotza ikusi det.

— Zein...?

—Beste Eskolako señoritea. Lurrak ondo aztertzen ditu arrek...

Sudurra du kako eta okotza luze, beraz mutur zorrotza lurrak aztertzen. Itz gutxigoetan ezin zeikean andre aren argazki sikolojikorik obeto egin. Irakasle ardaldunak umetxoa tonto-lapikotzat artuta zeukan; baiña, umearen begi zorrotzak garbi egin zion barruko ebagia: basurdea ikusten zuen mutur zorrot-

zakin bere gogo-inguruko lurak aztertzen barru osoa ondatu arte. Gurasoen irjtzira irakasle ona zan aurrak gogor artzen zitulako. Gogorregi eta euskaldunentzat, erruki gabea.

— Lurak ondo aztertzen ditu arrek!

\*\*\*

Mutur Zorrotzaren mendean, Ale gero eta okerrago. Maiatza izan arren eta ikastaroa oso aurreratua, Ikastolara aldatzea erabaki genduen. Orretarako Ikastolan itz egin eta baietz, artuko zutela. Ondoren Mutur Zorrotzarengana Aleren ama eta biok. Amak, baserritar euskaldunak, ezer gutxi zekien erderaz. Irakasleak ekin zion galerna baten antzera:

— Gurasoak dezute kulpaa osoa arduragabeak zeraztelako. Aurrari ez diozute gogor egiten. Etxera eramandako lanik ez du sekulan bakar bat ere egiten... Eta abar, eta abar. Ama gajoa lotzatuta zer erantzunik ez zekiela.

Arena egin ondoren, burura jo genduan. E.G.B.ko Eskola da eta zuzendariak neri:

—El problema es el mismo niño y no la escuela. Ya lo verá usted. El porvenir me dará la razón a mí.

Utzi nion nai zitunak esaten eta orrenbestez pozik giñan, ez bait zuen beste eragozpenik ipiñi eskola aldaketarako.

Ez Zuzendariak, ez Mutur Zorrotzak, ez zuen iñork aurraren ingurutik ezagutzen. Ez zekiten mutjko ura nun bizi zen, ez nolako joan-etorri neketsuak egin bear zituen egunero, ez zer ordutan eltzen zan etxera, ez gurasoen jakintazan-eza, ez etxeko g;roa, ez aurraren kiriotako nekea, ez ezer...

—Zer da irakaslea lenen ezagutu bear duena, aurrari latiña erakusteko? Galdetzen zuen jakintsuak.

—Latiña. Erantzun zioten.

—Ez, jauna. Lenen ezagutu bear duena, aurra berbera da.

Buruzagi nagusia eta Mutur Zorrotza, biak z;ran erdaldunak eta Aleren berri ez zekiten bat ere.

Gora-beera auetan 1975eko Maiatzean gebiltzen; orduan agertu giñan berriro Ikastolan. Ikastola sortu zanean, 1964, bera izan zan lenengoko irakasle agiriduna eta arrezkero berak zeraman zuzendaritza. Ume euskaldunen berri bazekien ondotxo.

## Mari Montessori

Patxara ederrean artu ginduzen eta amari lasaitasuna eskatu zion. Ikaskizunak euskeraz izanik, Alek errez ikasiko zitun bere barruko izkuntzakorapjllorik gabe. Ez zion lanik etxerako bialduko, osd'urrunean bizi ziralakoz. Gaiñera bere xistemaren berri ere eman zigun.

—Ñi Marj Montessorirekin nabil eta aren bidea onartzen det.

—Ñor da Mari Montessori? Galdetu nion aurrera b;dea errezteko.

—Bost urte dira (1970ean) Erroman billera bat izan genduela, UÑESCOK Mari Montessoriren omenez "Ñazioarteko Eziketa Urtea" eratu eta antolatu zuenean.

—Irakaslea al zan?

—Berez sendagillea zan, baiña irakaskintzarako zuen bere sena eta irakasle biurtu zan. Eun urte bete ziran 1970ean bere jaiotzetik.

—**Ñun lan egin zuen?**

—Asierako lanak Erroman egin zitun San Lorenzo bailaran. Aurren aziera eta eziketarako lege berriak aurkitu zitun eta asmakizun berriak asmatu: "Bizirako diran sustraiko legeak aurraren anima eta buruaren azikerako...".

—Interesgarria benetan.

—Puntu orretatik asi zan Montessori lege oiek aztertzen eta ezikerako era berriak asmatzen. Geldirik ezin egondan umea, ibilliz erakutsi eta ezi bear...

—Izan ere ez dira geldi egotekoak. Ildakoa bakarrik egoten da geldi. (Aleren amak).

—Beste alde batetik, berriz, ume txikiena ere persona bezala tratatzen zuen Mari Montessorik. Txikienak ere persona, norkia, izan nai du eta Erdal Eskolak ume euskaldunen norkia zapaldu egiten du, izkeragabekoa egiten duelako.

—Gure Ale beintzat (amak) oso zapalduta etortzen zitzaigun arratsaldero.

—Ala dio Montessorik bere liburu batean: norki orren aziketak baditu bere lege bereziak. Azi orrek bere barnean gizona gordetzen du, bizidun bat, askatu bear dana. Eziketaren legerik bereziena orixe da: zer ori askatzea, gordeta dagoena azalera ekartzea. Ezkurra ez da aritza, baiña aritza ezkur orretik etorriko da geldiro eta ziur bere legeak beteaz. Aurra ez da gizon edo emakume, egunen batean artara elduko da, gaur artarako dituen aalmen eta indarren bitartez.

— **Gaurko umea, biarko gizona. (Ekin nion).**

—Baiña, gaur ume oraindik. Indar eta aalmen oieri askatasuna prestatzea, orixe da ezikeraren eginkizunik mñena. Askatasun ori prestatzeko, ordea, aurraren ezaupidea egin bear aurretik.

—Umeak ezagutzea ez da ain erreza. (Amak).

—Gu, adiñekuok, bezelakoa ez dalako, orregaitik izaten ditugu umea eza-gutzeko ainbeste eragozpen.

\*\*\*

Aleren ama zorabiatuta bezala zegoen andereñoari begira, ago zabalik, arek esaten zitunak entzuten:

—Ikastolak etxe baten antzekoa bear luteke izan: umea bere etxean lasai eta aske ibilli oi da, bere gixara, iñoren indarkeririk gabe, begirunez eta maitekor tratatuak... Maixuaren begipean eta ez indarpean.

—Ala izan balitz, ez genduken gaur eskola aldatu bearrik nere semearentzat.

—Giro orretan, emeki-emeki baiña ziurki-ziurki, aurraren indar guztjak zabaltzen joango dira bere elbururaino, kemen oien apurrik galtzeke gorputzez eta espirituz. Pixkanaka, apurka aurra, jolasean bezala lanean ere, bere buruaren jabe egin dedin, bere kasa ibiltzen eta ekiten utzi bear, maixuaren eskutik, datorkionaren zaï alperkerian egon gabe. Egonean-egon ez baiña ekiñean-ekin: auxe da Montessorik aurkitutako xistema berria "méthode active" deritzana. Umeak berak billatu eta aurkitu bear.

—Gure Ale ere bere kasa ibiltzen da perretxiku billa.

—**Aurraren ezikerari buruzko ekiñaldi osoa maixuen eskuetatik zetorren; gaur, berriz, ekiñaldia aurren eskuetara pasa da. Umeak egin, maixuak so. Maixuaren eginbearra eta garrantzia ez da bat meetzen, argaltzen. Ez eta gutxiagorik ere.**

—Belarrondoko ederrak artzen ginduzen maixuaren eskutik. Ekin nion.

—Beartuta bezala artzen zuan umeak, maixuak ematen zion jakin-gaia; orain aurrak berak aukeratzen ditu jakingarriak; bere ariaz, bere indarrez eta bere kabuz ikasten ditu berriak. Ori bai: maixuaren aurrean, maixua eredu dala, maixua ispjllu dala... Gauzak orrela dirala, umeak eragozpenik gabe, gogo-txarrik gabe, bildurrik gabe onartzen ditu maixuaren laguntza eta maixuaren bizjtzako erakutsiak.

—Bai eder!

—Gordeta dagoena arkitzea, illun dagoenari argi egjtea, iges dijoana atzemaitea, oiek atsegin zaizkigu eta aurrari ere bai. Lanbide orretan ari dala, gorputz-animaren jndar eta aalmen guztiak azitzen zaizkio eta ezjzten; bide batez, biziaren atsegjña eta maite izatearen ederra agertzen zaizkio begien aurrean. Eta, "zer ikusi, ura ikasi". Baiña, maixua bear aurrean eredu.

—Orrelako euskal-eskola batera etortzea pozgarrj aiazango da benetan. Guk ez gendun suerte onik izan: eraztuna ipintzen zioten goizetik bateri beatzean eta euskeraz itz bakar bat egiten zuen umeari eman bear eta ajkzena gelditzen zana erastunakin, arrii kastigu ederrak eskola amaitzen zanean... (Amak).

—Aurrak salatari biurtzea, lan iguingarria. Zer eziketa sortu litzake giro ortatik, euskera madarikatzea ez bada...? Guk euskera maitatzen erakusten diegu; baita erdera erabiltzen ere.

\*\*\*

Pozik irten degu eta arratsaldean Ale asiko da Ikastolan. Joan geranean, bere kideko lagunek artu eta eraman dute. Aien poza Ale ikusi dutenean:

—Etorri gurekin.

—Etorri...

—Etorri...

Guztien batera bear zuten arekin itz egin. Jolas-unea izanik, sei lagunek lepotjk artuta eraman dute jolastera.

—Txuta, Alejandro.

—Ekarri baloia Alejandrok jo bear du-ta.

Eskola ondoren etxera etorri zait.

—Zer, Ale, ondo artu al zaitue?

—Danak djra nere lagunak.

—Baj?

—Baita señoitea ere.

—Ikastolan, Ale, señojteari andereño esaten zaio.

—Begira andereñoak zer eman didan.

Urez margotzeko kajatxo bat erakutsi dit. Beste gabe artu eta eraman det bere etxera. Eldu geranean, amamak Aleri:

—Zer, etsi al djozu...?

—Dan-danak dira nere lagunak.

—Dan-danak...?

—Baita señoitea ere. Begira zer eman didan.

Señoitea bere lagun agertzen dalako arriturik dago. Etxe-atarira jrtzen eta pelotoiari ostikoka asi zaigu. Pozik ama eta amama. Besteak mendian dira eta poztuko dira Aleren berriak entzutean...

\*\*\*

Bigaramonean Ale ikusten det beste ume guztien artean jolasean. Pozik zorutzen dabil. Urbildu zait:

- Gaur goizean arrautza eta xerradia jan ditut etxean,
- Beste egunetan zer jaten zenduen ba...?
- Baraurik ere bai, edo kafea.
- Goserik ez, ala?

- Ez; ementxe, estomango-zuloan, larria jartzen zitzaidan. Eguerdian maikide izan degu eta jan ditu jateko guztiak. Amaitu orduko, lau lagun agertu dira ate joka, Ikastolan jaten dutenak eta laurak Itzjartarrak:

- Alejandro?
- Bazkaltzen ari da; sartu denok barrura.

Gozoki apur bat bagendun eta boston artean banatu degu. Jeiki da Ale maikitik eta onela die:

- Etorri nerekin.

Baztar batera eraman ditu bere aurrerapenak erakustera. Idaz-makina batean bere izena idatzita zeukan: Alejandro Azpiazu. Sakabi-berri. Bazkal-aurretik erakutsi diot makina erabiltzen.

\*\*\*

"Aurra eskolara ez badator, berriz ere eta irugarrenez, jkastaroa berritu bearko du. Medikuaeren agiria bear da eskolara uts egiteko". Orrela zion Mutur Zorrotzak amari bialdutako txartelak. Itzez baimena emanda zegoen; baiña, itzakin bakarrik, paperik gabe, ez dira nun-bait gauzak konpontzen. **Sendagillearen agiria eskuetan duela joan da ama Eskolako Zuzendariarengana. Aurra onela esan omen dio amari etxetik irtetzerakoan:**

- Zu, ama, bildurrez zaude.

Amamak erantzun:

- Zer nai dek, ba...?

- Ba, zuek ere kontuan artu, nola ibilli naizen egunero. Arratsalde z mendira eraman dituzte Ikastolako aurra eta txakur batek Aleri praktetan zuloa egin dio. Orain arteko joan-etorriak beti egin ditu txukun eta garbi; gaur, berriz, praktak ausita eta zikiñak. Ume onek egin dituen jolasak, ordea...?

..•

Sei urte pasata, gure mutikoak ikastaroak amaitu zitun. Aurrera bere lan guztiak baserrian izango ditu: belarrak ebagi belar-zuloa betetzeko, metak edo zuitzak egin belar elduez, azpiak atera eta oillagorretan joan aitarekin eta usotan uso-pasea danean... Pozik baserrietik iñora aldendu gabe bere bizia egiteko; etxe-zulo bait da gure mutilla. Anai zaarrena aitarekin basora lanera; bera, berriz, amari laguntzen etxe-inguruko lanetan.

Beste sei urte zoragarri etxean gizondu arte. Ñekeak ere izan ditu soldaduzkan; baiña, orreri esker Espainiako zenbait erri nagusi ikusi ditu. Andik etorrita billatu zuen lana galdaragintzan eta onek eman dio aukera Italiatik ibiltzeko. Bira orren berri ematera etorri zait perretxiko pardeltxo eskuetan duela. Mutur Zorrotza ere aitatu degu. Ñundik ote dabil? Alde egin zuen bere'errira eta orde, giro obeagoko irakasleak eldu zaizkigu Erdal Eskoletara. Auek sus-traitik aldatzen asi zaizkigu zorionez, gaur-egun.

Garai negargarri aien itzalik ez alda berriro itzuliko gure erriaren gaiñera sekulo-sekulotan. Amen.

**Anes Arrinda**



# ALKAR LAGUNDU BEAR

Gure Erri'aren bizian barna ibili gabiltzala, bizi o i eutsi nai-izatean kexu, urduri ta leyatsu yardutea ezinbestekoa da guzientzat, eta xede ortaz egokie-nik nola ari bear dugun begiraga i beti. Guziok, enurarik gabe, gure E i'ari onena opa diogularik, ortan bat gerala ezin ukatu; baña, gero, onen ori zein izan ote diteken eztugu berdin ikusten, eta ortik sortu bear, ezinbesteko ondo-rioa bezela, gure artean berdiñak eztiran iritziak, maiz, alka en aurkako bezela ikusi bear ditugunak. Gizonen artean betidanik izan diran alka enganako ezta-baidak sortu zaizkigularik.

Orixe gertatzen zaigu, bai, guri ere oraingo ontan asmo ta egipen batzuei buruz mamitu zaizkigunak, eta oyen artean euzkerarena edo dugu garantzi aundienetakoa. Guztiok nai dugu gure izkuntza oni indar eta zabaltze ta sakontze aundjenak eman al-izatea, ortan be bat gera guziok; baña ori buru-tzeko, bide ezberdiñetan ari gera, bakoitzarena onena dalakoan; eta besteen aurean amor-egiteko beti uzkur eta gongan bear. Oso zala edo izango zaigu gure jokera ori aldatzea ta ohea izan diteken besteren bat onartzea. Alaz ere ezin gera gaitezke sorgo , eta emendik edo andik ororentzat ona izan diteken bide baten bija ibili bear guztion aldetik alegiñak egiten.

Asmo ortaz zertxobait aipatu nai dugu emen, geldirik egoteko jokera guziak astandu nayeian, eta egokja izan diteken zerbait age erazteko xedeaz. Ortarako ta gogo onez, eliztiari dagokion zerbaiteaz ari-izango gera. Eliztia, ziñez, izkuntzaren egitura dalarik, gurean eta nun-nai berdin dalako. Beraz, ortan guziok batera etortzea ezinbestekoa da, eliztiak esaten diguna onartze-an eta azkenez euzkera bera dan bezela ere artu ta erabiltzeko. Guztion bide-ak gure izkuntzaren egituraz zedañturik dagozela ikusi ta begiratu bear ditugu, oyetatik at ateratzeko asmorik gabe.

Ikus ditzagun, beraz, euzkeraren eliztiak oa erazten dizkigun iru lege, bereziki orsiztiaren legeak, len eta orain ere idazle geyenek aiztuta edo alboan utzi dituztelarik, egitan eliztiaren aurkako utzak egiten, eta neuk ere lenengoaz bederen ori egin dudala, naiz eta nire eliztian lege oyek lenengo ikaskayan aipa-tuak izan, aitortu bear dut; alakotz, ortan guziok edo geyenok e udunak gera. Lege oyek, ez nik bakarik, Azkue, Arana-Goiri, A igarai, Lopez Mendizabal eta beste batzuek berdin age erazten dituzte. Ona emen zeintzuk diran:

Lenengo legea: l'az egindako bikonde bateaz (ai, ei, oi, u<sub>j</sub>) itz bat amaitzen danean eta atzetik gediñen bat gañeratu bear bada, bikondearen 1 or<sub>j</sub>, gediña dana, Y igidiñaz aldatzen da, u engo gediñaz izkin bat eratzeko.

**Esate baterako:** **Bei + a = Beya;** **dei + a = deya;** **otoi + ak = otoyak.** Gañera, guziok geronengan oartu dezakegunez, aldatze ori berez egiten da; o engatik berezko legea bezela ere ar dezakegu.



Bigaren legea: Bikonde berbera o ezaz amaitzen dan itz bati N bat eta gero gedin bat gañeratzen bazaizkio, bikondearen I gediña ezabatzen da ta esandako N ori N'az biurtzen da. E.b.: Artzai + n + a = artzaña; a ai + n + ak = a aña. Aipatutako I ori ezabatu gabe gera diteke, baña Ñ igidiña beti Ñ'az aldatzen da.

Iruga en legea: Bikonde oyetakoaz amaitzen dan itzari L bat eta onen ondoren gedin bat gañeratu ezkerro, L'a LL'az aldatzen da. E.b.: Zai + I + a = zalla; e aboil + I + a = e abola; emen ere I ori batzuetan geratzen da, baña L'a beti LL'az aldatzen.

Oyetekek ditugu gure otsiztiaren iru legeak, elizti-legeak diranak, eta berak guregan berez edo sortzen dirala ikus ditzakegunak; ikus baño obeki entzun ditzakegula esan genezake, ta norberak ori eglztatzeko, nai-izan ezkerro. Alakotz, lege oyek eliztiak aipatu baño lenago o ela sortzen dira, berez, guban.

Ba-dakit, jakin ere, len aipatu dudan bezela, lege oyek ain nabari ikustean ere, euzkal-idazle geyenek, beren idazkietan, aitzuta bezela uzten dituztela; ta nerea be izan dan utz ori zuzendu nai dut emen eta gerorako, ta pozik ikusiko nuke besteak be o elaxe jokatzean; ori egin ezkerro egiazko gure batasunean beste u ats egoki bat egin genezake.

Iru lege oyen aurkako utzak, lenengoari dagokiona agertzen da nabariena, ta arestian edo asita, or age erazten dizkigute amaika itz utz o ezaz aldatuta; e.b.: Deja, Bizkaia, Aia, Araia, Otoia ta abar, Deya, Bizkaya, Aya, Araya, Otoy, ta abar ipiñi orde. Ñik eztut ikusten ori zergatik egiten dan; aitzitik len bezela egiteko izpidea argi agertzen dalakoan nago, egokia dan legeari ja aitzearen arauz.

Ba-dirudi 1, ñ ta y izkiak zearo baztertzen nai dala; baña izki oyek beste iru soñu, oso argi ta nabariak diran iru soñu, adieraztean dituzte ongi ta bereziki. Gogora dezagun ele-yakintzak zedañtzen duen jokera au: Soñu bakoitzarentzat ikur bat, ots, bat bakañ onartzea, ta, ondorioz, ikur bakoitzarentzat soñu baka a ere onartzea. Beraz, ezinbestekoak ditugu iru izki oyek, berezkoak diran beste iru soñuai dagozkienak. Eta ezabatu nai bide diran izki oyek kentzea, nabarigañago agertzen da, beste aldetik, soñurik adierazten eztuen h beste izkia geto ta geyago sartzen nai dan bitartean. Bakanak benetan alka en aurka agertzen diran bi jokera oyen egipenak, geron aldetik iñola ere ulertu ezin dezakeguna, oso zentzuegabekoa iruditzen zaiguna.

Ontaz edo artaz guztiok ari gera batasunerako bidean, ez noski era berean; batzuen batzuk iraduz beterik; besteak, aitzitik, astiro ta zuurtasunez jokatu nai dugunok. Geron ustez iñola ere ezin ar dezakegu ontzat, ortan iñungo ebaketerik egitea, ori, ziñez, euzkeraren aurkako egipena izango litzakelako. Euzkadi'ko alde guztietan mintzatzen dan euzkal-izkuntza da euzkera, ots, Euzkal-Eri guziak darabitena, ta izkelgi bat ere ezin arbuyaturik geratzea. Batasuna izatekotan izkelgi guziarena izan bear, eta orela bakarik izan diteke egiazko batasuna. Alakotz, izkelgi bakoitzaren ba utian, izkelgi ori da erabili bear dana, oña i bezela noski; ta bide batez izkelgi bakoitzaren ere alegiñak egin bear dira beste izkelgietatik el diteken guzia onartzeko.

Ez ori bakarrik, jakaña, ta ezinbestekoa bezela auxe da, nai ta nai ez, egin bear dana, eliztiaren arauak guztien aldetik onartu ta ja aitzea; bai ta nun-nai izan ditezken oke ak zuzentzea ere. Orela egokiro alkar lagundu dezakegu, bear-bea ezkoa dan laguntza ori burutzeko guztiok eta bakoitzak eginbide

bezela onartzean. Jokoan gure izkuntzaren bizia dago ta berarekin gure E l'arena ere; orixe da iño; z aitzu bear eztuguna, alegiñetan buru-bela i ari-izateko.

Argi dago gure ebazkizun onek duen garantzi aundia, ta garantzi oren arauz yardun bear dugu guziok eginkizun guzietan; enurarik ez, beraz, nola jokatu bear dugun ikusteko, alkar beti laguntzean; gutxi gera, zoritxa ez, euzkaldunok eta o engatik bear-beara izango litzaiguke guzion artean egiazko lenengo batasuna egin, eta orela erazago elduko g;ñake euzkal-izkelgien batasunera-ño; aitzitik, geron batasuna egin orde z alka engandik aldentzen bagera, eziña edo izango zaigu beste batasunera eltzea; ta ortik dator nolako ezinbestekoa dan guk guziok alkar laguntzeko beara. Eta orela bakarik gaizkatuko da gure euzkera, bai ta, ondorioz, gure Ha ere; azken elburu au begiratzean ematen dut nire lantxo au egokia dan izenpurua ipintzen: Alkar lagundu bear.

**Umandi**



*Liburuak nun Aita Lino an.*



# 871'N ARABA'KO LARRUKI BAT

Jarrai dezagun larruki zar onen azterketa. Baditu gaiñera larruki onek geroago josi zitzaizkion eraskin batzuk ere. Bat X mendekoa (984) eta, bestea XI'goa (1034).

Eraskin oiek Serrano'ren liburuan datoz. Ubieto'k ez dakarzki. Alare nere ustez, gizonetzkoen izenei-buruz oso gauza jakingarriak bertan baditugulako ez ditut aztertzeke baztarrean azturik utzi nai.

Errien izenei dagokienez, aztertua dugun OCOIZTA'z gaiñera onakook aipatzen dizkigu 984'ekoak:

MALILOÑA	FOROÑDA	AÑGAÑA	TERRAZOS
PAMPILOÑA	DIVIÑA	ESTIVALIZ	MURIELES
BERGALE	CASTELLA	ALCOPA	SALOÑE

Azkeneko orji, Salone, 871'ko larrukikoa da. Aldizkari onen azkeneko zenbakian aztu zitzaiguna.

1034'ko eraskiñak toki-izenik ez dakar. Soilki giza-izenak, baiñan arras interesgarriak.

Esan-berri dudan bezala, askoz ere jakingarriagoak iduritzen zaizkit nerji iru larruki zar auetan giza-izenak toki-izenak baiño.

Ikus 871'ko larrukian orduango euskaldun zar aien izenak. Ñik, emen, nere uste apalez euskaldunak izan daitezkeanak bakarrik agertuko ditut:

ARROÑCIUS	BIVERE	ALAQUIDE	BELHORRIAGA
	MUÑÑU	ÑUÑÑIO	

Larruki ontako beste izenak ez dira Euskaldunak. Alare bearrezkoa dugu bisogeten izendegikoak diran edo ez jakiteko saiotoxo bat egitea.

Auek dituzu berriz X mendean, 984'ko eraskiñak damaizkigun euskal-usaietako giza-izenak:

ÑUÑÑU BALZA	MUÑIUS	SAÑCIO	URRAKA
AURIBITA	BEGI LAZA	OBEKO	MUÑÑIO
	LUPE	GARCIA	

Azkeneko eraskiñean berriz, XI mendekoan onako euskal-itxurako giza-izen auek aurki dezazkegu:

BELAGGA	ALAQUIDE	MUÑIO	OVECO
BEILA	MOÑÑIO	ÑUÑÑU	MUÑIZU
AME	AMATE	ZEIAÑE	ULAKIDE

Bi eraskiñetan, bai 984'koan bai 1034'ekoan euskaldun-antzarik gabeko giza-izenak ere badira. Gure eginkizuna, izenoiak bisigotak diran edo ez jakitea

izango da. Gauza berdiña egin bearco dugu dokumentu auek damaizkigun done-izenekin ere. Ekintza ori bearrezkoa bait dugu,

- Euskalerrriak bere nortasuna nola gorde zuan jakiteko;
- Atzerriko kultura zenbaiteiraño sartu zitzaigun jakiteko;
- Kristautasuna nondik etorri zitzaigun jakiteko.

Asi dezagun gaurkoz gure lan-saio kaxkar au 984'ko eraskiñean dakuskigun erri-izenak aurkeztuz:

**MALILOÑA:** "... in concilio de Malilona. "Kontzilio" esaten dio gure lumalariak Santxo Ñaparroa'ko erregeak eta Urraka bere emazteak Malilona'n egindako batzarrari. Ederki esana, batzar ura, Muño Gotzaia eta Albaro Abata biak batera erakartzeko egiña izan bait zan. Orixe esan nai du ba laterazko "conciliare" itzak: bi gizakume bateratzea. Larruki ontan, batera ekarri bear ziran gizakumeak, Gotzai bat eta Abata bat ziran.

Gotzaina ta Abata bata bestearen aurka ipiñi zituan auzia, Okoizta'ko lekaidetxetik zergak jasotzeko Gotzaiak eskubiderik ba zuan edo ez, ziur jakitea zan. Baietz esaten zuan Gotzaiak; ezetz berriz Abatak.

Ezin aurkitu izan dut Malilona non zegoan. Baiñan ziurkj, Araba'ko zelaian zegoan, Gaztejz'tik ez urruti, Foronda erriaren alboan, "kontzilio" artara joan aurretik, erregeak eskatzen zuan ziña Foronda'n egin bait zuan Abatak, Torkuato eta Martin Doneen aurrean.

Malilona jzen euskalduna dan? Ez dakit. Kukulla'ko larruki danak, XII mendean eta urrengo mendeetan ber-idatziak izan ziran. Danak!

Ber-idazle aiek euskeratik ulertzen ez zuten lumalariak ziran, eta orregaitik aldaketa asko egin-bide zituzten euskal-izenak ber-idazterakoan. Beste batzuetan baita gauzak kendu eta erantsi ere, Gaztelerrria goratu naiez.

Ez dakigu beraz nola eman zigun izen ori X mendean larruki au lenengo aldi idatzi zuan lumalari ark. Ura bai, ura euskalduna bait zan.

Gaur dagoan bezala, Malil-ona itzak euskalduna du "OÑA" atzizkia, ugaritasuna adierazten duan atzizkia: Arr-ona, Aitz-k-ona, Gar-ona, Mall-ona, eta abar.

Ez dakit ordea "itzaren enborran dan" "MALIL" ori zer izan daitekean.

Ziur dakidan gauza, auxe da: X mendean, Araba'ko zelaiean, erri ark zeramakian izena, naitanaiez zala izen euskalduna, euskera beste izkuntzarik ez bait zekian, erri ari izen-eman zion jendeak.

"Mal" aurrizkiz asten diran euskal-izenak ugari ditugu. "Mali"z asten diranetatik nik auek ezagutzen ditut:

Maliz, Araba'ko Armenti'n larre bat. Gure larruki'ko Malilona ura egon zitekean tokitik bertan beraz.

Kukulla'ko burni-barren larrukian datorren Malizhaeza. 1025'ekoa da larruki ori. Malizhaeza berriz, naiz Foronda bere barruan artu ez, beste erri batzuen artean Armenti bera bai, eta baita Gazteiz ere artzen zituan lurralde baten izena zan. Gure Malilona lurralde ortan egon izatea ez litzake arritzekoa izango.

Malkajtz berriz, Iruña'tik ego-sortalderuntz 8 kilometrora, Egues, Aranguren eta Unziti aranen artean dagoan mendj bat ornen da.

Alatagutziz, Malilona zer izan daitekean, ez dakit.

Malilona'ren erdiko "LIL" oiek, lumalari aietako batek "LI" idazterakoan oartzeke "L" bat geiago sartuz egindako oker bat oso errez izan daiteke. Eta "LI" antziña artan "LL" agoskatzen zutelako, zorioneko Malilona ori, MALLOÑA izango genduke.

Gaur egun Mallona, abizen bizkaitarra dugu.

Kerexeta'gan irakurria dut, etimologilari baten ustez, Mallo-na, Mallo-ren dala, eta Mallo ori Magilo izen zeltiarraren laburpena dala.

Bide ortatik dabil Mitxelena ere. Itxura bereko beste izen batzuekin batera, aipatzen du gure Mallona, baiñan ez du argirik ematen. Euskera al duan guztia erderen morroi agertzeko, Caro Baroja'ri jarraituz, izen oien "OÑA" atzizkia, Pompeyona Iruña'ren later-izenean bezala, laterari kendutako atzizkia dala diosku, onako au erantsiz: "Lo que precede a "ona" en estos nombres es para mí absolutamente hermético. Desde luego ni es latín ni es vasco; podría ser indoeuropeo identificable, pero todavía no está, ni mucho menos, identificado".

Ta, ori esan, eta lasai gelditu zan gizona. Zerbait esan ba'lu bezala! Baiñan ez zuan ezer esan.

"Mallo"z eta "Mallu"z asten diran toki-izen eta abizenak ugari ditugu. Mallo bera, Euzkadi guztian arras zabaldutako izena da: Bizkai'n, mendi-izen eta abizena; Gipuzkoa'n larre-izena: oso berandu arte euskaldun izandako Ueska'n, mendi-tontor zorrotzen izena; eta, Ñaparroa'n..., nork ez ditu Aralar'ko Malloak ezagutzen?

"Mallo", bere leen esan-naiez, armendi-katea, gazteleraz "sierra", dala esango nuke nik, bai Ñaparroa'n bai Gipuzkoa'n izen ortako larreak armendien alboan edo armendiko zokoetan bait daude. Itxura ortako malkarrak dira Ueska'ko Malloak ere. Bestalde, "Mallo" itza, "Malla" itzaren senide dala dirudj, "eskalon" gazteleraz. Ortaz, "mendi-mallo", "mendi-malla" izango genduke: gazteleraz, "sierra".

Lopez Mendizabal'ek eta Kerexeta'k ordea, "mallo" "larre" dala uste dute. Ori egia ba'litz, Mallona, LARRETA izango litzake. Gazteleraz, "pastizal".

\*\*\*

FOROÑDA: "... iuravi in S. Torquati et in S. Martini de Foronda": "Foronda'ko Donetorkuato'ren eta Donemartiñ'en aurrean ziñ-egin nuan".

Larruki ontan agertzen da aurreneko aldiz erri orren izena: Foronda.

Mende bat geroago, 1025'ean, 'Kukulla'ko Donemillian'en lekaidetxeko burni-barren larrukian Oronda agertzen zaigu erri orren izena. 1138'an berri abizen lez, Foronda damaigu larruki batek.

Forundarena, XIX mendean eskribau edo baratari ospetsua izan zan Tolosa'n. Bere aurrean, eta Tolosa'n ain zuzen, utzi zuan Zerdeña-Saboa'ko erregetza Karlos Alberto erregeak, Itali'ko lenen errege izatera iritxi zan II Biktor Imanol semearen eskuetan. Abizen ontan ordea, Forunda'rena, Foronda, toki-izena ez baiña giza-izena dugu.

Foronda, izen euskalduna da ezbairik gabe. Eta euskaldunagoa nere ustez OROÑDA lez FOROÑDA lez baiño. Eta, izatez, orrela izan ere izanen da, erriska orren izena: Aurretik, "F" eufoniku edo doiñugozagarri bat duala, OROÑDA.

Itz orren etimologia edo esan-naia zer izan daitekean, ez dakit. Bere egiazko izena Oronda baldin ba'da, "DA" atzizki toki adierazlea da, eta aski ugaria Euskalerrian (Ziganda, Zirarda, Legarda).

"ORO" aurrizkia berriz, zer dan ziur ez dakigu. OKA eta OÑA bezala oso itz zarra izan bear du euskeraren altzoan. Maiz ikusten dugu gure toponimian izen osagarri bezala: Orobio, Ororbia, Orokieta, Oroeta, Oroz, Orozko, Oronoz, eta gure Oronda...

Araba'n bada ORO izeneko muño bat, eta bertan, Miren Ñeskutsaren baseliz eder bat. Baita, edesti-aurreko zeltiarren garaieko "kastrum" edo arrizko ez babestutako bizi-leku bat ere.

Oronda beraz "oro asko duan tokia" izango litzake. "Oro" zer dan jakiten dago kokka. Bada "garo" dala dionik ere. Ortaz, OROÑDA, garadi edo iradi izango genuke. Orrela ote? Ez dut ziurtasunik,

Danadala, Oronda edo Foronda txit erri zarra dugu Araba'n, erromateko arrjdatzi edo "lápida" bat aurkitua izan bait da bere lurrian: Erromatarrek edo euskaldun erromartuak ziran, bai arri ori idatzierazi zuana, bai arri orrek damaizkigun izenak ere. Ikus:

"Exuperius materno co(n)iugi carissime p(ossuit) m(onumentum) et sibi et fi(lio) materniano et filie carissime".

Euskeraz, "Illobi au, Materna emazte maite-maitearentzat, eta beretzako, eta Materniano semearentzat eta alaba txit maitearentzat egin zuan Exuperio'k".

Izen oiek, ikusi duzunez, laterazkoak dira danak. Ez da arritzekoa, Foronda'tik oso bertan egon bait zan erromatarren gudaritegi bat: Iruña'ko "gudaritegi" edo "opidum" ospetsua.

TERRAZOS: "Omnes testes de Terrazos": "Terrazos'ko guztiak lekuko". Terrazos ori, zalantzarik gabe, ez da euskal-jzena. Ez da laterazkoa ere. Erromantzekoa ere ez da. Gaztelarazkoa da beraz. Izan ere, Martin Alonso'k bere "Diccionario Crítico Etimológjco"n dionez XIII mendean agertzen bait da lenengo aldiz.

Baiñan gure eraskin au X mendekoa da, eta X mendean gaztelarrik ez zan. Ezta oraindik erromantzerik ere. Latera, bai noski, latera bazan, baiñan gure erria ez zan sekulan lateraz mintzatu.

Zer ote zan ba azkeneko lumalari baldarrak larrukian gaizkj irakurri zuan erri-izena? Edota, itxusia ta agoskajtza iduritu zitzaiolako, Terrazos gaztelaratu zuan erri-izen euskaldun ura zer zan ote? ERRATZO'ren antzeko zerbait?

\*\*\*

DIVIÑA: "... comite Lupe Sarrazinez in Divina": "Lupe Sarrazinez Dibina'n konte".

Larruki ontan agertzen zaigu jzen au ere lendabiziko aldiz. Gero 1025'ean, Donenmillango burnj-barren larrukian agertuko zaigu berriro. Foronda'ren inguruan 18 errik osotzen zuten Araba'ko lurralde baten izena zan.

Iñork ez dizu "Divina" orren etimologirik emango. Berez laterazko itza da, eta "jainkotiarra" esan nai du.

Baiñan etimologi orrek ez digu balio Euskalerriko erri-jzen batentzat. Antziña'ko Euzkadi zar artan erriak ez bait zuan beñere lateraz itzegin. Gaiñera, toki-izen euskaldunak ez dira era ortan antolatutak izaten. Lurraren

nolatasunari, ala lurraren gaiñean dauden edo bizi diran gauzei begira izaten dira sortuak. Ia beti beintzat. Ñaiz asko izan ez, jabearen izena daramatenak era bai bait ditugu. Antoñana, adibidez.

Ausartu nadin ni, —ziurki ezer aitortzeke—, Divina orrentzat etimologi baten billa. Bi bidetik joko dut ori lortzeko:

Lenengo bidea:

Antziña artan "V" eta "U" oso-oso maiz nasten ziralako, Divina ori ez ote dugu DIUIÑA?

"E" eta "I" ere sarritan nasten zituztelako, Diuina ori Deuina izango genuke. Ez zaitetz arritu, aldaketa ori dokumentuetan sarri ikusten bait dugu. Adibidez,

Diuztegi (Ernani'ko abizena) Deuztegi'ren ordez. Laburdi'n berriz, Divarte, Deuarte'ren eta Duarte'ren ordez.

"Divina" "De Uina" baldin bada, gure lumalari zar arrek UIÑA'ko idatzi nai izan zuan. Laterara itzulita, jakiña, DE UIÑA, lateraz ari bait zan larruki au idazten.

Uina ordea errez izan daiteke UGIÑA; "G" orj beti-beti jaten bait dugu, agoskatzerakoan, euskaldunok. Beraz, Divina idaztean, UIÑAKO ala UGIÑAKO eman zigun lateraz idazle zar arek.

Ez al du era ortan gure Divina'k egiazko euskal-itxura galanta bat artu?

Ugina abizena badugu Euskalerrian eta Lopez Mendizabal'en ustez izen orrek garadi esan nai ornen du, "UGI" garoa dalako. Eta, "ÑA", ugaritasunezko atzizkia. Bai ote?

Ugi bera eta Uinagenta ere Bizkai'ko abizenak dirala eta "de significación imprecisa" dirala, diosku Kerexeta'k.

Aurreneko bidetik ez gera, dakusazenez, elburu ziur batera iristeko gauza izan. Sar gaitezen bigarren bidetik:

\*\*\*

DIVIÑA: D'lvina ere izan daiteke. D'lbina, euskal idazkeraz. IBIÑA'KOA, euskeraz. Izen orren etimologia argira ateratzeko, IBIÑ zer dan jakitea izango da gure egin bearra.

Ibin abizena Bizkai'n bada. Baita Ibinaga ere. Bi oietaz gaiñera, pilloka ditugu Euzkadi'n IBI'z asten diran abizen eta toki-izenak.

"Ibi", euskeraz, ibai bat oiñez igaro daitekean tokia da. Gazteleraz, "vado".

Emen ordea, itzaren zentzu orrek ez digu gure Divina'ren etimologia emateko balio, Divina zeritzan lurralde artan guztian, edozein tokitik oiñez igaro daitekean Zaia izeneko ibaitxo urri bat besterik ez bait da.

"Enciclopedia General del País Vasco"ren jritziz, "Ibin" itza, guk "galtzu eta españiarrek "rastros" esaten dioten "Ibine"tik ornen dator.

Itzaren zentzu orrek ere ez digu ordea balio Divina edo Ibinaga zan bezain lurralde aski zabal baten etimologia tinkotzeko.

Kerexeta'k beste bi etimologi damaizkigu izen orrentzat:

1.ª "Ibin", ("agin"- "abin"- "ibin"), "agin"en aldaketa izan daitekealako, eta "a" atzizkia "aga"ren laburpena dalako, Ibin-a, IBIÑAGA izango litzake: gure gaurko euskeraz, AGIÑAGA: "agin-toki"; gazteleraz, "lugar de tejos".

2.ª "Ibin" "ipin"en aldaketa ere izan daitekealako, eta "ipina" edo "ipina" gure euskeraz "zuma" eta gazteleraz "mimbre" dalako, IBIÑA, ("ipin"+"a"), IPIÑAGA, izan ornen daitekeke: "Lugar de mimbres", gazteleraz; gure euskeraz, "zumadi". Gaur egungo Araba'ko gazteleraz, "zumakera".

\*\*\*

Ñere iritzia jakin nai duzula?

Ñi, Kerexeta'k damaizkigun bi etimologi oietatik bigarrenarekin geldituko nintzake. Zergaitik?

Lendabizj, lurralde ura oso zelaia eta urtsua dalarik, naiz gaur dotore landua agertu, antziña artan agin-toki baiño geiago zuma-toki errez izan zitekealako.

Bigarren, "ibin"dik "agin"erako jauzia baiño "ibin"dik "ipin"erakoa askoz sinistagarriagoa gertatzen zaidalako, "b" eta "p" errez alkar-aldatzen bait dira gure euskeran: "barkatu", "parkatu"; "bake", "pake", "bortizta", portitza, boltsa, poltsa, eta abar.

"B" "P" bjurtuz, "Prantxixka: Putaneroa etorri zaigu-ta, joan bearko dugu presaka beregana. Badakizu jenio txarreko mutilla dala".

Orj, gure errixka batean emakumezko batek bere lagun bati nola esaten zion nere lagun batek entzuna da.

Danadala, zerbaiterako balio izan digu beintzat D<sub>i</sub>vina'ri buruzko solasaldi onek: Izen euskaldun bat, —IPIÑAGA—, lumalari erdelahun eskuetan izen atzerritarra, —DIVIÑA—, zeinen errez biurtu daitekean ikusteko, alegia.

**AÑGAÑA:** "...et uno puteo in Angana": "... eta osin bat Angana'n". Izen ori "an-gana" baldin bada, "gana" zer dan badakigu: gipuzkeraz gaiña.

Eta, bai "GAÑA" eta bai GAÑ "a" atzizkirik gabe, oso ugari agertzen zaizkigu Araba'ko toki izenetan. Bizkajera itzegin bait zuan gure lurralde ontan jendeak.

Madoz'ek dionez, Angan izeneko errixka bat bada, edo beintzat bazan bere denboran. Baiñan, Lugo'n, Euskalerritik urruti. Ez digu beraz balio. Ez beintzat, beste Galizi'ko toki izen batzuk bezala, emendik ara joandako kolonizalari batek emandako izena ez ba'da.

"Anga" —eta "ango"— ere atzizki lez ugariak ditugu Euskalerrian: Artanga, Uranga, Durango, Kuartango (Araba'n).

**Larruki ontan ordea, atzizki ez baiña aurrizki da gure "anga" ori.**

"Ang"ez asten diran izenak asko ta asko ditugu Euskalerrian; eta badjira "anga"z asten diranak ere: Angaitz, Ñaparroa'n Beorburu erriko dolmen baten jzena dogu; Angara eta Angaria, Araba'ko Kontrasta'n toki-izen lez 1647'ko dokumentu batean agertzen zaizkigu. Angarias, XI mendean, Enkarterriko toki-izen bat zan. Gaur, "Las Angarias" esaten diote enkarterjarrek.

"Angana"ren antzeko izenik berdintsuenak, "Angoiti" eta "Angoitia" ditugu biak Bizkai'ko abizenak Kerexeta'k dionez, naiz beren itxura zearo gipuzkoar izan.


Kerexeta beraren ustez, eta baita Lopez Mendizabal'en ustez ere, "an", "ana"ren laburpena, "larre" ornen da; gazteleraz, "pastizal". Orrela ba'litz, Angana, LARREGAÑA izango litzake.

\*\*\*

Baiñan jdazlan au geiegitxo ari zaigu luzatzen da, ementxe bertan eman bearko diogu gaurkoz azkena. Jainkoak nai ba'du, eskuetan daukazun onen urrengo zenbakian jarraituko dugu gelditu zaizkigun toki-izenen eta batez ere giza-izenen azterketa.

**Latiegi'tar Bixente**





## AITA LINO AKESOLO, BERTSO-ZALE

Era bitera idatzi oi dogu, itz lauz, prosaz eta itz neurtuz. Lenengo eraz geure pentsamenduak nasai-nasai adierazten doguz, ezetarikoko lotura barik, eta orrelaxe idatzita daukaguz literatura guztietan libururik geienak. Bigarren moduz, ederra adierazten dogu itzaren bidez, geienez beintzat, baiña itz orri neurri baten barruan ezarriz, barru eta azal itxura ederraz jantzia. Onek ikusiz dakarsku zentzun zirrara bizia eta irakurriz barne-doiñu gozoa. Ideia ta itza, biak bioaz eder loturik. Olerkiak espiritua atsegin-azo bear dau ederraren ikuspegiz.

Aita Linok, zatikaren batzuk izan ezik, ez eban olerkirik ondo. Nik alan be, ezin neinke esan, ori egiteko gauza etzanik; etzen orretan, egundo be jarri; badiu lantxo neurtu batzuk, baiña besterik ez. Baiña gaztetxo ortan asi ba'balitz, etzan orretan be azken geratuko. Ba-eukan irudimena eta sustriaz ekian euskera...

Orain urte bi dirala argitaratu ziran aren idazlan guztien ale biak irakurriz ezin geinke ukatu aren bertso ta olerki-grina: ainbat euskal bertsolari ta olerkarien lanak aztertu ta jorratu zituan, astiro eta ardura aunditan. Beraz, olerkari-tzan jarduna ez ba'dogu be, olerki ta bertso-zale zalako, ainbat oler-lan ikusmiretu ta luma-puntan erabilia da. Ikus aiataturiko bere idazlan tomu biak: ez ditut banaka batzuk besterik emen jarriko, geiegiz gogaikarri ez izateko:

Gerra aurretik eta gerra ostean ainbat artikulu idatzi zituan karmeldar aldizkarietan —"Karmen'go Argia", "Karmengo Amaren Egutegia" eta "Karmen"-en—; onein istoria idaztean, lenengoan agertu zan, 1981'an ain zuzen, asieran datorren iru estrofeko olerkia aitatzen dau.

Eundaka gai aztertzen ditu, eta J. Biotzaren Deya'n, 1962'an, "Euskera antxiñako? Yesuiten eskoletan" idazten; orko duda-mudak erabagiteko, lau euskal estrofa dakaz idazleak.

**Araba'ko abestiak aitatuz idatzi eben "Anaitasunean", 1968'an, Munduate'en iru olerkitxo adibidez jarritz.**

Asko dira gure erria zapuztu nai dabenak, baita idazle zentzun aundiko batzuk be bertako lur, mendi, etxe, itxaso ta abar, goi-goi jarri dituenak be. Aita Linok gure bertsolariak txalotu dituan bat aurkitu dau, eta or bere artikulua "Gure bertsolariak erdal idazle baten luman", Donostiko Diario Vasco'n, 1972'an.

An Lenago "Egan"-en etorri zan beste lan bat "Bertsolariak Fernando Amesketarraren garaian", ogei bat adibide luze-laburrez, benetan bikaiñez,

apainduta. Andik eta emendik arturik, bertsoak Pernando'renak ez diranak ez dituzu gitxi ari ezarriak. Ondorengo au Astarloa'rena ei da:

"Aupadatu zenduan aupada ero orrek  
—au zorakeriai—      —Motriku esazu-  
zertara-ta pelotan      eztitu bada beti  
Markiña guztia      Markiñak auzpeztu".

"Mattin" bertsolaria negarrez dakar beste lan bat, Diario Vascon, 1972'an, eta negar ori eztitzeko zortziko bñ oskintzoz.

Bertsolarjatzaz lenengo barriak Zamakola arratiarrak emon zituan, naiz-ta idatziz lenengo agertzen dana lztueta zaldibiarra izan. Zamakolari zor dauzagu Durango'ko zidargille anai ospetsu Juan Kruz eta Antonio'ren barri emotea be.

"Zehar hitz, zuhur hitz" lanean, ba-ditu ainbat XVI'garen mendetik gerozko esan zahar mordoska bertsoz.

"Zuk zer dezu, Arantzazu?" eta "Ñoren astakeriek". "Amatino" lanak be badabez bertsoak.

Ziri zorrotzak.

**B.** Etxeparena da euskerazko lenengo liburua, azken urteotan frantsesez Lafon'ek eta gazteleraz A. Akesolo'k ipiñia. Lenengo argitalpenak ez eukan punturik ez beste alakorik; irakurtea erreztu nairik A. Linok egin dautso erreztatze ori, erderatzeaz batera.

Joannes Leizarraga be aztertu eban onen poesi asko bere lekuan jarririk.

Esteban Etxauzkoaren euskerazko gutuna aztertu eban, emen datozen bertso zatiakaz, puntu illunak argitzen maisu argituz.

Harizmendi olerkariaren lana dakar gogora, ondorengo argitaratzaileak egin dabezan uste ez diran utsakaz.

Bardin Bernard Gasteluzar'en lana be; olarkari gozo arren ainbat pusqueta sartzen dausku bere lanean.

**Ziburu'ko Joanez Etxeberri'ren lana jorratzen dau, oso astiro: bertsoan zergaitik idatz; eban esanaz, ango arrantzaleentzat noski. Onak bertso askoren artean "Ñoelak" eritxon liburu eder bat, oraintsu be argitaratua, ondu eban; au be aztertzen dausku dimatar idazke bizkorrak.**

Baita aitatzen dau, erderaz, Pablo Pedro Astarloa'ren se; aapaldiko olerki arraro bat be, Karlos IV, 1789'an errege atsegiña izan zanekoa.

Jose Pablo Ulibarri aztertzen bost ;ru artikulu luzetan, irurotan ogei bat puska sarturik, interesgarriak.

Ez dau azten Aita Mateo Zabala (1777-849), gramatikari eta ipuin-idazle ez makala, frantziskotarra; sakonki astintzen dau onen bizitza, beraren lanak len lez lakeraien euskaldun gogo.

Juan Jose Mogel'en bertsoak eder jakoz, bere lanetan sendo agertzen daualako eroian euskaldun gogo.

Bilintx irri-bertsolaria dardar gaiñean darabil, asko poliki, aren lanak be adibidez jarririk.

Artikulu bi osotu zituan Iparragirre, Gernikako Arbolaren egilleari buruz, bigarreanean ainbat ejenplu, aren amar bat estrofa, aukeratu, emonaz.

"Arrese Beitiaren gomutaz" idatzu eban "Karmel"-en 1957'an, aren olerkigintza aztertuz. Adibiderik naiko dakaz lan orretan, otxandiotar santugille ta poetaren lanetatik.

"Escritor vasco muerto en la batalla de Verdun, Clemente de Andurain", R.S. E Vascos'en, 1979'an sei-zazpi estrofa dakaz euskerazko bertsoz.

Lizardi ta Lauaxeta aztertzen ditu ainbat artikuluetan, euren oler-sa;il ugariak emonaz; geroago Karmel'en emon zituan Lizardi'ren gaztetako poesi lanak.

Lotsa aundi eutson Azkue-tarrai; biak goretu zitun. "Azkue, Aita-semeak" osotzean olerkari gozotzat azaltzen dau semea batez be, "Parnasorako Bidea"n datoza makiña bat lantxo a;jtaturik. Ikus "Karmel", 1979.

Sarri jarduna dogu Enbeita'tarrei buruz. Kepa ez-ezik onen anai imanot be olerkari ona eta ugaría zala-ta, onetzaz be lan luze sakon emon euskun "Zer"-en, 1988'an "Gitxi ezagutzen dan euskal idazlea: Enbeita'tar Imanol (1884-1948) lanean. Eder jakon gorderik egozan euskal idazleak eguzkitara ekartea.

"Atx-ostetik atx-ostera" deritxonean bertsolari bat dator kantari.

Aita Agustin Atutxa, karmeldarra, Dima'n jaioa, Txile'n eta Peru'n egin eban bere eleiz-zerbitzua. Euskal gogoak eraginda bizi izan zen. Erbestetar bizi zala, "Mugarra" euskal poema idatzi eban, aberri-sentipenez betea. Au goratu eben Aita Linok, "Agur"-en (1978) emon euskun lanean.

Urepele'ko seme Xalbador bertsolaria, "Odolaren Mintzoa" goratuz, dakar-kigu gogora. Bertsolaria sortzen, goratzen, nekez eta doiñuz, idazten, ñirñirka.

Mañari'ko seme Aita Lon Arteaga karmeldarra gogoratzen dau Euskalerritik urrin bizi zala be, bertso ederrez olerkari sena erakutsi ebana. Aren lau olerki puska sartzen ditu bere lanean.

Zipitria andereñoari buruz Tolosa'n egin jakon omenaldirako aren olerki txorta bat aztertuturik aurkeztu eban. "Idazle guztiak" lenengo liburuan datoz olerki xumeak, 658 orrian, "Zipitria, Andre-Marizale" titulupean.

M. Lekuona-zale zan eta iru artikulo eskeiñi eutsozan. Bigarreanean, aren "Aozko Euskal Literatura" aztertzen diardu.

Txom;in Jakakortajarena'ren olerk;gintza ast;ntzen dau, ainbat lorez txukun-duta. "Diasporako euskal idazlean"-en bardin.

"Andra Maria euskal literaturan" or-emen kimatzen ditu zeruko lorak (Etxepare, XVII mendean, euskaldunak Andra Mariari kantatzen, oitotza euskal literatura, Teresa deuna euskal literaturan.

"Bertsozko estropadak" Zeruko Argian, 1964'an, adibide ugariz. Bardin "Lau misio-kanta zaar".

Euseb;jo Maria Azkue zenaren "Euzkadia" aztertzen dau Karmel, 1979, 128 estrofa emonik, 1862'an onduak.

D.L. Urkizu durangoarraren lana atsegin jako, bere Errosarioaren bertsozko misterioekin.

Santa Teresa'ren "Vive sin vivir en mi - Ezin hilez hiltzen (Zuberoeraz, eta lan bat osotzen dau oni buruz.

"Amaseigarren mendeko euskerazko "Miserere" bat" damosku Karmel'en, 1982'an.

Lizardi gaztearen olerki sorta. Karmel, 1987. 15 olerki, "Samaiko Zulo" eta "Zarau utz'tar Sabin" izen-ordez.

"Miguel Unamuno ta Miguel Deuna", Unamuno'ren olerki bi datoz bertan, euskeraz.

Zirilo Arzubiaga "Jaungoiko-zale" ta "Ekin-en biotz izan zena. Aren amabi-bertso-lerroko olerk; bat artzen dau.

Beloke ederra da, eta Lino maiz izan zan mendiño aretako Andra Mariaren

aterpe dotorean. Olerkitsua iruditzen jakon, oi eta orixegaitik "Belokeko Amak elize berria" idatzi ebanean, poesi asko jarri zituan artikulu orretan.

"Aezkoz-ko Eguberriak jarraitzen ote dute?" lanean ezta urri bertsozko goralpenetan. Ikus "Goiz-Argi", 1973.

"Domingo Iturrate, zori ondun" (Karmel, 1983) artikuluan olerki bi daukazuz, sentsu orri buruzkoak.

"Illeta andiak Donibane Lohitzunen. Txomijn Onaindia il da" lanean Iriarte jaunak, erri-otoitz ostein abesturiko bertso mordoak dakar.

Bardintsu dago "Andra Maria Balentijn Berriotxoaren bizitzan".

"Begoñako karmeldarren eunurte garrenean" (Karmel, 1988) "Orixe"-ren olerki batzuk datoz, euskal olerkari aundi au Begoña-zale zalako.

"Mendata'ko olerkari kirmenaren "Elorri" aztertzean, aren ainbat lan dakaz ikusburu legez.

Ba-ditu oraindik, or-emen, beste txatal batzuk olerkiz orniduak.


Irakurle neke-gaitza izan zan Aita Akesolo, eta geienetan, irakurri-ala notak artu oi zituan; au gazte-gaztetatik, batez be euskal kulturari buruzkoak. Gizon naiz emakume, euskal arloan jarduna bazan, bere paper artera joian; ortik aren lan bete-betea, euskal literaturan.

Aita Akesolo-ren bertso-grinazko ekiña amaitzeko, au be aztertu bear da: etzala zale bakarrik, baita egille be. Bizkaiko Olerkarien artean sartu neban aren olerki jator bat, arek giltzape aurkitzen zala bertsozua.

Bein gainera Frantzisko Abrisketa'ren eskabidea eldu jatan, kolonbiar poeta moltzo baten lanak euskeraztu bear genduzala. Orduko onenak aukeratu nitun. Or datoz Aita Akesolo'ren itzulpenak be. Eleiz-salmuak era berean bizkaieraz ipiñi euskuzan.

Sartu gengike, beraz, euskal olerkarien barrutian.

## Aita Onaindia



*Mungian, Lauaxeta'ri omenaldian.*



# "BEAR" eta "NAI" ren TOKIA

## "BEAR'en tokia

BEAR aditza era bitara erabiltzen da. Bat, bera bakarrik, erderazko "necesitar"en esanaiaz:

"Dirua bear dot ezkontzeko" = "Necesito dinero para casar".

Bestea, beste aditz baten lagun, Azkue'k "aditz aldagarri" izena emoten dautsana:

"Asko jan bear dot sendotu nai badot" = "Tengo que comer mucho si quiero fortalecerme".

Lenengoan ez dago auzirik baiña bai bigarrean. Onetan era bi ikusten doguz gaurko idazleengan. Bata; oraintsu arte Bidasoa emendiko idazle geienak, (guztiak ez esatearren) alderdi onetako erriaren izketa moduari jarraituaz, beste aditz eta aditz laguntzailearen erdian sarturik BEAR aditza. Ta bestea; azken urteotan, idazle askok Bidasoa andjkoen idazkerea eurenganaturik, aditz nagusia atzean lagaten dabe, lenengo tokian BEAR aditza ipiñiaz.

Ara ondoren era bietako esaldiak andik eta emendik batuta. Lenengo eraokoak, nire ustez ondo dagozanak:

"Donostia'ra joan bear det arratsaldean".

"Egizko askatasunaren gidaritzta ta frenua agintaritzak izan bear du".

"Telebisioa ekarri bear digu aitak".

"Gizartean bizitzak —ondo joango baldin bada— bi gurpil oien gainen ibilli bear du".

Bigarren eraokoak, nire ustez ondo ez dagozanak.

"Euskal kulturaren etxegintzan zerbaiz egin nai badegu nork bere arria bear-ko du jarri".

"Baña orretarako ispiritu irikia bear da eduki".

"Den lurrik onenak ere bear du apaindu".

"Fedea —munduan den ondasunik baliotsuena— zaindu nai badegu, fede onen sustrai eta oiñarriak bearko ditugu indartu eta azkartu".

"Gure ustez, puntu onetan ere, al delarik, bearko genuke batasuna egin".

"Bearko zaitut laga". Saria irabazitako olerki baten idazpurua).

Ikusten dogunez joskera desbardin bi dagoz gaur idazleengan. Lengoa gitxi dakit. Joskera biok, kontixu, erri berbetan sutraituak izango dira. Baiña nire ustez biotatik bat jatorragoa izango da, euskerarean nagusitzen diran sintaxis legeen alderdira gejago jausten dana. Ta argitu egin bear litzake zein dan jato-

rragoa, kontu onegaz zer ikusia dabeen euskeraren lege jakin batzuk aztertu ondoren.

Ñi ez naz iñor kontu au argitzeko, baiña orretarako gauza diranentzat argitasun batzuk agirian ipiñiko ditut.

BEAR itzagaz egiten diran izen bikotx eta aditz bikotxetan, bietan, itz au, atzean gelditzen da, erderatik alderantziz:

Esan bearra = La necesidad de decir. (Decir o contar con mucho afán).

Jan bearra = La necesidad de comer. (Comer con mucho apetito).

Esan bear = Tener que decir.

Jan bear = Tener que comer.

Ez dot uste, goiko izen eta aditzak olan soillik esatean iñok aldatzen dituanik. Ta errelatibo ta konjuntibuetan be danak gure joskerara burua makurtu bear izaten dabe.

"... bala batek ibilli bear duen bidea alde aurretik dakianik".

"Il bear zutenei eriotza emanaz iseka-bide eta irrigarri asko egiten zitzaien".

"Etziñan ba zu iritzi berdiñekoa orain urte batzuk dñjala bertsolaritzaren tonua obetu ta jaso bear zala zeniozunean".

Olakoetan aditzean BEAR aditza lenengo ta aditz nagusia azken ipiñi ezke-ro (beste gramatika aldi batzutan egiten dabeen lez) barregarrikeriarik andiena jango litzake. Ara goiko esaldi bat aldakera ori emonda:

"...bala batek bear duen jbilli bidea alde aurretik dakianik".

Ñire ustez BEAR aditza beste aditz nagusiaren ondoren joan bear da, bai baiezkoetan eta bai ezezkoetan gerotxuago aitaturko dodan exzepziñoa kontuan izanik:

"Egueridian etxera joan bear dot baiña ez dot bazkaldu bear".

Exzepziñoa, bereizkuntzea, auxe da. Enfasisean esaten doguz "Bearko jan!", "Bearko emon!" eta olakoak; au da, BEAR beste aditzaren aurrean dala, baiña eurok be bardin esaten doguz bestera: "Jan bearco!", "Emon bearco!". Txikjkeria onek ez dau austen onetan dogun joskera legerik.

Ta gure joskerea txarto dagoala iñok ezin esan daike, gramatikako ezetari-ko legerik biurtzen edo okertzen ez dogulako. Ostera, beste joskerakoak biurtzen dituen argi dago.

**Kontu oneitan maixurik andiena izan dan Altube'k, joskera biurtze au ondo ikusten eban ERDERISMO idaztian diñoanez:**

"Los vascos orientales se valen con frecuencia de un giro especial, muy expresivo, para recalcar aún más el carácter inquirido de los miembros de la oración. Consiste en desarticular la flexión perifrástica invirtiendo sus componentes a fin de hacer seguir el nombre verbal al sustantivo auxiliar; véase los siguientes ejemplos". Ta beste batzuen artean ondorengo esaldiak ipinten ditu:

"Orratzak baiño ariak luzeago bear du jzan".

"Ola lezake gobernamentuak oren ona billa".

Bidasoa andikoen joskera orren errezoirik ez dau garbi agertzen Altube'k. Ñi argitzeko bestean ez beintzat. Esaldian beti da inkiridua atalen bat, besteak baiño garrantzi geiagokoa; ta edozein atal inkiridua izanda be beti era orretan aditza biurtu al bada joskera orregaz ez da ezer nabarmentzen, atzekoz aurre-ra ipinte orrek ez dau ezer balio.

Ñiri neuri joskera ori ezelan be ez jat sartzen. Goiko orrein antzera ondoren-

go oneik be esan ete daitezke? Errezo; bardiña dabeenarren ezetz esango neuke:

"Biar Donostia'ra nintzake joango".

"Arratsaldean usokumea dot jango".

"Datorren igandean "mendi-mendian" bear dot abestu".

Ama;tzeko; gure joskerea erderatik (gaztelar nai prantzesetik) urrunago dagoala deritxat Bidasoa andikoen or; baiño.

Ta orregaitik, jatorragoa be ba-dala esango neuke.

## "NAI"ren tokia

ÑAI aditza be BEAR legez era bitara erabilten da.

a) Euskadiko aditz bakarra legez:

"Lur zati bat duenean, beste bat nai izango du".

b) Beste aditz baten lagun legez:

"Ura edan nai dot".

Aditz au (ÑAI) Azkue'k BEAR legez aditz aldagarri saillean sartzen dabena da. Beraz, lege bardiñak izango ditue biak kontixu. Alan be ÑAI'ri, oituraz askatasun geiago emoten dautsagu sintaxis kontuan.

BEAR aditza beste aditzaren aurrean entzuteak min emoten dausku belarrietan. Ondorengo esaldia lakorik ez da esaten; ta norbaitek no;zbait esan edo izaten badau nire belarriai arrotz giten jako:

"Datorren igandean Donostia'ra bear dot jua".

Ostera aditz atzekoz aurrera ori sarri giten dogu ÑAIgaz. Olako asko entzuten da:

"Datorren igandean Donostia'ra nai dot jua".

Ñire ustez BEAR legez ÑAI be aditz nagusiaren ondoren joan bear da geienetan:

— Zer diño Joseba'k?

— Donostia'ra joan nai dabela datorren igandean.

Ezezkoetan be ez jaku txarto iruditzen ÑAI aurrean ipintea. TA au, bear bada, ezezkoetan sintaxis kontuan beste edozeiñ aditzegaz be askatasun andia dagoalako izango da.

"Len, ondartzara joan bear ebala ta negarrez egon da ta orain joateko gertutu garanean ez dau nai joan".

Ostera BEAR'egaz ez dago olakorik. Ez dira esaten:

"Ez dau iñora bear joan". "Orain ez dau bear jan".

Auzi onetan be esaldiko ;nkiridua zein dan jakiteak zer ikusi andia dauko. Iñoiz (noizba;t) aditz nagusiaren aurretik joan bearra izaten dau ÑAI aditzak. Au erderaz YA (SI) daroen esaldietan izaten da:

"Len, jatekor; ez eban nai ikus; be baiña orain, nai dau jan".

Emendik azkenera eredu legez ipiñiko ditudan esaldiak idazle baten liburu batetik artutakoak dira. Gaurko idazlerik onenetakoa bera. Ñire ustez ondo diranak eta ez diranak danak nastean arkitzen dira, ÑAI aditza aurrean edo atzean ipiñi ardura gitxiko kontua dala agertzen. Baiña liburu orretan be nire ustez ondo diranak geiago dira.

Esaldiak zati bitan joango dira. Lenengo nire ustez ondo diranak. Ta gero besteak, alde bitan, idatziak izan diran legez ezkerrean eta nik zuzendutakoak

eskuman.

Ondo diranak:

"; gure bizi najak arutzago nai du".

"; beti bizi nai dugula, eriotza ezin dugula onartu".

"Alperrik da ba gure sentipen orrentzat oiñarrj sendo bat billatu nai izatea".

Goazen orain ondo ez dirala ta azkenean ipiñiko doguzala esan dogunakaz:

I datzi dabe:

"Mundu onek eta gure bizitzak duan esanaia, sentidua nai du gizonak jakin".

"Buruan sartzen bazaio lurra naiz ganadua eukitzea beti naiko du geiago".

"Gure sentierak bizia maite du, nai du beti bizi".

"Berak nai du orain oraingo gauza bat eta ez besterik".

**Olan obeto nire ustez:**


"Mundu onek eta gure bizitzak duan esanaia, sentidua jakin nai du gizonak".

"Buruan sartzen bazaio lurra naiz ganadua eukitzea beti geiago naiko du".

"Gure sentierak bizia maite du, betj bizi nai du".

"Berak orain oraingo gauza bat nai du ta ez besterik".

**"Kamiñazpi"**





# LIBURVXE

## LIBURU BERRI BAT ETA EUSKERAREKIKO OKERBI DEAK

Ñeure apaiz-lagun miñenak, Gaztañaga'tar Josu'k, bezuza aundi bat jarri dit eskuetan, orain berri'tan argitaldu duan idazti goxoa, liburu berria.

Abade-lanetan eta euskeraren il ala biziko arazo larrietan erabat murgildurik bizi danez, kristau sinismenerako zitekean gaia aukeratuen zuala bere idazti berrirako, eta gai jakingarri ori azaltzeko, bere Errezil erriko euskera goxoa ta garbia erabilliko zuala ere, ulerterrez egiten zaizkit.

Euskerea goxoa diot, izan ere gutun edo idazti ori irakurri-ala, —bearrik ezean ots gogorreko erdel-itzen batek belarrjak astintzen dizkidan arren— aijn bai-da erri-euskera goxoa eta euskal-joskera, berriz, ain xaloa ta jatorra, belarrietan sortzen didan atsegiñaz, Gluk baten ereserki unkgarrja entzuten ari naitzela iduritzen zaigt.

Urteak joan eta urteak yin, astero-astero "Diario de Navarra" egunkarian argitaratzen zituan igande oroko Berri Onak, eta iru urteango A.B.D. aldiak osatu ondoren, danak bildu ta idazti bikain batean argitaratu ditu.

Idazti orri, izenbururik egokiena eman dio: "Jesus'en billa". Izan ere gure Aberria, Kristo'rekin elkar-maitasunean eunkietan eta eunkietan bizi ondoren, gaur, zoritxarrez, Kristo'rekin askotxok artu-emanak galdu egin dituzte; eta zeruan ez-ezik, ludi ontan ere zorionekoak izan nai ba'dugu, ez daukagu beste biderik, Kristo'rekin ostera elkartzea baiño, gaur Arengan sinismena galdu ondoren, zoritxar guztiak gaiñera etorri bai-zaizkigu.

Ostera ere, bada, Kristo'rekin adiskidetasunak egiteko, eta Ura nor dan obeki ezagutzeko, bide bakarra daukagu: Aren Berri Ona, eta bide orixe erakutsi nai digu Gaztañaga apaizak idazti onen bidez.

Irakurleak idazti au, ez du iñola ere eleberri bat bezala irakurri bear, aurreneko orritik azkeneraiñokoa irakurri arte eskuetatik uzten ez duala; orrela joka lezakeanak ez dio etekiñik aterako: aspergarrj izango litzaioke, ez du iñola ere Jesus aurkituko eta ez du euskera goxo ta jatorra ere bere-bere egingo. Astean bizpalau bider igande bakoitzeko Berri Ona irakurri bear du, ango itzak ongi jaso ta bein eta berriz ongi ausnartu, muin guztia eraustu arte eta era ortara Jesus'ekin bildarkatu ez-ezik, erri-euskera jatorraren jabe ere egingo da.

Eraiki-lana baiño ameika bider errazagoa dala onda-lana, danok dakigu. Etxerik aundiena ere beera botatzeko, su-txotx txiki bat aski du aurtxo batek ere, baiña etxe ori jasotzeko, ludi guztiko aurrak ere ez lirake gaigt.

Gaurko iraultzaille "aurreratuok", umekeri orixe egin dġgute, Euzkadi'ko bi eraikintzarik aundienak eta ederrenak eta bearrezkoenak, –kristau-sinismena ta erri-euskera– beera botatzean; eta orain lanak izango ditugu gure Euskalerrri maitea zorionekoa izango ba'da, bi eraikintza oiek berriro jasotzen, eta ortarako, apaiz danak, kristau zindoak eta euskal-idazle jatorrak bearoko ditugu. Eta eginkizun ortantxe, laguntza aundi bat emango digula Gaztañaga'ren idazti berrġ onek, ziur nago.

Iraultzaille guztġek ere, kristautasuna ez dute erabat galdueraziko, Jainkoa'ri dagokion lana danez eta Aren eskuetan soillik dagoanez, ori eziña bai-da. Ongġtxo ikusi dugu iraultzailleen eskualdeetan, etsai oiek, irurogeitaka urteetan erabat debekaturik eta izkutaturik iduki ondoren, barriro be leen baiño are indar biziagoaz agertu dala.

Euskera ordea, Jainkoak gizakien eskuetan utzi duanez, beroien zabarke-riaz eta axolagabekeriaz betġrako izkuta daiteke, eta berrogeita millaka urteeta-ko bere bizġ luzean, izkutatzeko izan duan inkarrik larriena ta arrixkutsuena, oraintxe daukala uste genezake: inguruko Laterri aundietako betiko etsaiak aski ez dituala, orain, zorigaiztoko "BATU" orrekin, iraultzaille ondatzaille oiek, etxean sortu bai-zaizkio eta gure euskera garbia, erderazko osin sakoneko zurrunbilloaren erdi-erdira daramate ur bultsu oienpean betirako ondatzeko.

### **Euskera bera da itz-arrobi aberatsena**

Gure ele arrigarria, sortu zanetik ia amaseigarren menderaiño, aozko mintzaira soillik izan zan, eta garai artan idazten asi ziranak, euskaldun guztiek ulertzeko eran nola idatzi, ezin sumatuz aurkitu ziran, erabat sakabanaturik ikusten bai-zuten euskera.

Euskera orduan sakabanaturik egotea, bidezkoa ta adiarauzkoa da: ordu-rarte errġak eta gizakiak, eunkietako bakardadeetan, elkarren artean biltzeko aukerarik eta burtaillu egokirġk gabe bizġ izan baiziran, eta bakoitzak bere txo-koko izketa besterik ez bai-zekian.

Egoera au gogoan arturik, erraz uler genezake, ludiko beste izkuntza guz-tiak legetxe, euskerak ere euskalkiak ġzatea. Bidezkoa da, bada, eta adierraza, mendialdeetako biztanleen euskerak itxas-aldekoenetġk bereiztasun aundiak izatea, bien bizitokġak, egugiroak, landareak, tresnak, langintzak, abereak, arraiak eta abar luze bat, ezberdiñak izanik, ezberdintasun ortatik euskalkiak sortzea; lenenik, Auñamendġz aindikaldekoen eta onaindikoen artean, eta jarraġan, mendikaldekoen eta itxasaldekoen artean, eta orren adierazgarri, or-txen daukagu lau euskalki nagusienak, arteango bertzegitzetxoak gogoan ar-tzeke: Iparraldeko izkelkia bere berexotasun batzukin, Ñaparroa'koa, Gġpuzkoa'koa ta Bizkai'koa, lau izkelki nagusi, lauek ordea EUSKERA bat-bera, garbia, jatorra, aiderik gabeko ta amorderġk gabea.

Lau euskalki nagusi oietan dauka euskerak bere mintzabġderako aberasta-sun guztia, eta lau izkelki oiek dira ama-euskeraren ume jator-jatorrak eta eus-kerak biziko ba'da, ama orrek lau ume oien arnasa eta laguntza bear-bearrez-koak ditu: ez du batek ere bizirik galdu bear.

Lau umeok amarekin sukalde batean bizi ba'lira, sendi osoak EUSKERA BATUA egingo luke, eta alkarregaz eragozpen txikienik gabe ulerturen lirake, baiña euskera ori guztiz motxa ta beartsua izango litzake. Umeok, eskualdea

bakoitzetan bizj diranez, bakoitzak bere eskualdeko aberastasuna ekartzen dio Ama Euskerari, eta ortik euskalkiak.

Euskalki oiek lau eskualdeetan erraz ulertzeko eran, nola "BATU"?

Orra or euskaldunek aspaldidanik askatu nai izan duten mandorapilloa!

Lau eskualdeak zear dabilzan salerosleak, azokazaleak, langilleak, bertso-lariak eta abar, lau euskalki oietan erraz jartzen dira, eta orixe litzake euskera batzeko biderik errazena, baiñan orrek euskera batutzeko, errian ez du eragin aundirik izaten.

Ñola lortu dute, bada, ludi guztiko izkuntzek euren izkelkietako batasuna? Zalantzarik ez dago, izkelkiak ongi ikasi ondoren, aietaz zeatz-meatz jabeturik, gorengo idazle izan diranek batu dituztela urteen jon-arian jzkuntza guztiak. Ez noski "BATUAK" nai duanez, goizetik gauera ta euskeraren iruntsizale diran beste erderazko itzekin, naaste-porraste bat egiñez, euskeranto berri bat asmatuta; izkuntza indartsuagoak, euskera aulagoa iruntsitzeko, orixe bai-da biderik zuzenena.

Gogoan izan nola Zerbantes'ek, beste idazle onekjn batera, gaztelera batu zuan, Goethe batek doitzera edo alemanera, Shakespeare'k englandera eta Hernandez'ek "Martin Fierro"rekin gautxoek izkuntza, eta abar. Euskera batzeko ere, idazleek lau euskalkiak ikasi bear dituzte, aietaz zeatz-meatz jabetu ta ongi jabaritu, eta idazlerik aundienak eta onenak jarriko gaituzte EUSKERA BATU jator baterako bide zuzen eta ziurrean.

Orretzaz gain, jakintza gaietarako, guztiz atzeratua daukagu euskera, bere bizitzako urte luze oietan zear idatzi gabeko aozko elea bakarrik jzan danez, gelditu zaizkigun itzak baiño iru bider geiago, bide-bazterretan galdurik utzi bai-ditu; eta jaso ditugun esku-txoko beteko itzekin soillik, jakintzako gaiak ezin erabillirik, euskeraren kalterako, erderazkoetara jo bear izaten dugu.

Zorionez or daukagu idazti zaarretan eta iztegieta amaitzeziñezko euskal-arrobi aberatsa, eta orri esker, ortik atera genitzake jakintzarako itzik egokie-nak eta ulertterazanak, gerkerak eta latiñak ematen dizkigutenak, -izkutatuta-ko aleen iztak izanj- euskaldunoi ez baidigute ezer esaten, eta euskerazko asmatuen aldean, askoz ere ikaszaillagoak egiten bai-zaizkigu. Alabearrez gai-ñera, jakintzako itz berriak sortzeko, gerkerak eta latiñak baiño egokitasun eta erraztasun askoz ere aundiagoak ditu euskerak.

Ona emen adigai bat: "hidroscopidad" baiño "urasekortasuna" ez al da euskaldun batentzat ikasterrazagoa ta ulergarriagoa? Lan au ordea, erri sumeak ezin egin lezake, ortarako gaitasunik eta jakintzarik ez baidu. Lan au ere, idazlerik onenek eta euskera ongienik menderatu dutenek egin bear dute; bestela, ikasigabeek, itz tertelak eta ezegokiak asmaturen bai-lituzkete, erderazkoekin ere naaste-pillatuz.

Orren adierazgarri, ortxen daukagu ondikozko "BATU" ori.

Ezur-maiñetaraiño erderaz ezi ziran, beste batzuen artean, iru iraultzaille amesgillek beintzat asmatu ziguten "BATUA", eta dagoaneko oietako batek bazterrera jaurti du izertoiala, berak asmatu zuan "BATUA"ren aurka itz gogorenak eta gordiñeak esan bai-ditu: "BATU" aiputsu ori euskeraren ondamen utsa da, aren ukatzaillea erabat, guztiz euskera bitxi bat, "esperanto" bera baiño are okerragoa". Ark ori ba'dio, zer geiago gelditzen zaigu guri esateko?

## **Belaunaldi berriak nire itxaropen**

Ala ere, nik iñoiz ulerturen ez dudana, auxe da: "BATU" orren mendean, nola jarri diran gure abertzale nagusiak, Jaurilaritza, Euskaltzaindia, Ikastoletako Irakasle ta Andereñoak, izparringietako berri-emailleak, muturreko abertzale ornen diran H.B.'koak, euskera gorroto duten "zozolistoak", Euzko ezkertar guztiak eta azkenena aitarenka jarri nauten ainbat eliz gizon eta apai-zak! "Batua" sortu zuan orri, leenago txoro-txoro jarraitu ziotenek, orain ere, zentzu obeaz, jarraituren ote diote, erriaren aurrean apal-apalki, guztiz oker ibilli dirala aitortuz?

Belaunaldi bakoitzak bere jokabideetan, eritzietan, errigintzan, kiroletan, abestietan, jantzietan eta abar, garaiaz-garaiko boladak eta joberak oso itsuak eta zoroak izaten dituala, ezin argiago erakusten digu edestiak.

Ñun dira iragandako gizaldiko "pelayo" sail aiek? Zer egin dute paparrak bete geziz azaltzen zitzaizkigun "palankista" aiek? Ñun dabilta txapel gorridun karlatar arro eta suzale aiek? Gizaldi batean danak jzkutatu dira! Ni ziur nago, urrengo gizaldiko zentzu aundiagoko eta itsutasun gutxiagoko gaztediak, gaurko "BATUSTAÑO" oiek euskeran egin duten ondamera ikustean, eskuak burura eramanda, "BATU" itza ere ez dutela entzun naiko, orain eguzkialdean "KOMUÑISMOA" itza bera ere entzun nai ez duten bezalaxe.

Ñork ez du, bada, ikusten "BATUA"z batera erdera ikasten dugula? Ikustirriak, berriak orrela ematen dizkigunean, "Bilbo'ko transitoa, kolapsatu da" esanez, aġtak, erdera geixeago dakian semeari, "Ori zer duk?" galdetzen dio. Semeak aitaren euskera garbian orrela azaltzen dio esanaia: "Arnasa moztuta, biotza gelditzen dan legetxe, Bilbao'ko bide-ibillia, etenik gelditu egin dala".

Euskeraren aitzakiz, ona nola ari zaigun irudirratia euskerazko itzen orde, erderazkoak sartzen. Irakasleak baiño euskera geġago jakin dakiten ikasle bat baiño geġago, "BATU"ko greba, bulegoa, asanblada, proposamena, esfuerzoa, konzentrazioa eta orlako aleunka erderakada gaiztoak, eta H sakabanatzaillie ori nun jarri jakin ez dutelako, urrengo urterako atzerat utziak izan dira!

Urte luzeetan amestu ditugun euskal-ikastolak eta irudirratia, orain eskue-tan ditugunean, non bururatu zitzaiokean, euskeraren aitzakiz, euskaldunoi erdera sartzen asi zitezkeanik, laterriko aintziñako irakasle zital aiek baiño are okerrago? Eta euskeraren ondamendirako dan lan makur orri laguntzeko, erri-euskera zapuztu ondoren, gure abertzale ornen diran agintariek, milloikak diru eskeintzen dizkietel Ñola egon litezke ain kutsatuak? Erantzukizun latza bizkar-reratu dute gezurako.

Barriri diot: ni ziur nago, oraingo burruka-griñak erabat itzali ondoren, urrengo belaunaldiak egiok garbi ikusiren dituala, eta "BATUA" bein betirako zapuzturik, erri-euskerara erangogo dala. Ortarako orde, urrengo gaztediari, gure idazti jatorretan euskera "BATUA" ez baiña "EUSKERA OSOTUA" eskeiñi bear diogu, "batu" nai izateak beti bai-du berekin indarkeria, eta gure erriak aspalditxotik dio gorroto bizia indarkeriari.

Gure Euskalerrria ez-ezik, gure gazteak ere, erabat bidea galdurik, norantza jo ez dakitela dauzkagu. Erri-euskerazko idazti jatorren bidez, guk jarri bear ditugu zuzeneko bidean.


Ortan ari gera erri-bertsolariak, izparringietako zenbait berri-emaille Kardaberaztarrak, Euskerazaintza'koak, "Arbasoen izkuntza-zaleak", "Euskerazaleak", "Saski-Ñaski", eta aldizkari zenbait eta erri-euskera biotzez maite duten idazle jator ugari. Oraingoz gutxiengoa egiten dugula tamalez, badakigu, baiña etsitzeke jarraitu bear dugu bide zuzen ortatik atera gabe, egia gurekin dagoala, ziur bai-dakigu, eta ondoren onik ez duala izango erderara garamazkian zoritxarreko "BATU" orrek.

Erri xumeak eta zentzudunak ere, ez du onartu erdel-euskera ulerkaitz ori: nazka ematen dio, eta ez du irakurtzen. Bere euskera goxoan guk lan jakingarriak eskeintzen ba'dizkiogu, oituko da irakurtzen, Jainkoa'k dakian garaietatik aozko izkuntza bakarrik erabilli duanez, irakurtzen ere ez bai-du ikasi. Erri guzti ori gureganatzen baldin ba'dugu, erabateko geiengo eragingarri bat egingo dugu, eta orduantxe betirako bizi-berrituren dugu j-l-zorian daukagun gure ele maitea.

Euskera errazeko eta garbiko Gaztañaga'ren idazti bikain au ere, ortxe izango dute urrengo belaunaldiko gazteek auta-autako bide-erakusterik onena. Ar bitza nire lagun miñenak, ene zorionik beroenak.

Oraingo itsas-aserrean, kaiarako bide galdutako guztiak, Euskera garbiko ta jatorreko idazti oietan aurkiturren dute euren erri ta etxe maiteruntz zuzenean eramango dituan ipar-orratza. Jainkoa'k ai lezal

**Jakakortajarena'tar Txomin**





# GOI-YAKINTZA'RUNTZ URBILTZEKO NAYEAN - NAIMENA

Ba-ditugu gure baitan menak asko, ta men guzti oyek nolabait gizonaren almen oroka a osotzen dute zalantzik gabe, edo almen oren besoak bezala begira ditzakegu; ta ororen bitartez gure gogo-biziaren ikuspegiak dirala ere onartzekoa izanik, bizi ori argi ta zabal-zabalik agertzen zaigu, gizonaren nor-tasuna eratzeko. Men, almen, gogoa, aipaga iak benetan gizona zer dan adierazteko, ta oso egokia zaigu guziak aztertzea gu geu nor geran atemateko.

Ona emen aztertzeke ona dan beste almen bat, oso berezia dana, ÑAIME-ÑA, ots, nai-izateko mena. Bai, berezi-berezia dugu almen au, beste menekin, zuzen, alkartasunik ez duena. Ñunbait ikutu egin ditzake besteak, baña beti iraitzean eta oyekin alkarbiderik izan gabe. Alakotz, men au gure baitan berez sortu ta bakarik ari da bertan bere elburua betetzeko. Auxe nai dugu, beste ori ez dugu nai, noiz-nai diñogu guztiok, gure erabakitasunik jakin-eratzeko; naimena agertzea, beti, erabakitasuna adierazteko egiten da; beraz, edozein erabakitasuna aipatzeko, naimena sortzen da, orixe burutzeko ezinbesteko eragile bezela. Ora naimenaren ga antzia gure gogo-bizian, eta gure soñeko egi-penak be betetzeko oso beara dala ikusten da.

O engatik oso argi oartzen da gure baitan dagoen almen onen ondorioak naiz gure baitan naiz guregan ere gertatzen dirala, ta orixe dala-ta ongi esan dezakegu almen au nolarebait gure baitatik guregana eraz doakigula, elburuak batean naiz bestean buruturik izan ditezken.

Egitan, aundia dugu gure barneko bizian nai-izatearen almena, naimena. Ñola dugu, baña, almen ori gure gogoan? Ñundik sortu zaigu bertan? Edo nork eman digu orela izateko almena? Beste zerbaiten ondorioa al da gure naimena?; ez dirudi, ezta ori argi bederik ikusten, eta gure baitan jayo giñanetik bera dan bezela dagoela, berez edo dagoela, onartu bear dugu, azpegi bi auetan: Ñai-izatea ta nai ez izatea.

Jayotzen danetik eta bereala, iñork ezer irakasi gabe, ba-daki gizonak "nai dut" edo "ez dut nai" esatea, ta orela erakusten da argienik gure gogo-izaeraren zati berezi bat dala, men aundi bat bezela agertzean. Eta ortan dagoen garantzi aundia garbi azaltzen da nun-nai esaten dan esakun ontan: Ñai-izatea al-izatea da. Ta edozein gauza gureganatzeko edo lortzeko naimena da erabilli bear dana. Beste esakun au be edonun entzuten da: Ñai duenak al duenak baño geyago dagi. Ta orela guztien aldetik naimenaren almena garbiro aipatzen eta onartzen da.

Ñaimena jokoan ari-izateko, kari edo zioeren bat izan bea da au etik; osterantzean naimena igitzerik gabe geratzen da gure baitan ondoririk gabe; almen geldia dala esan genezake orduan; baña zioeren bat sortu ezkerro, txikiena bada ere, bereala yardutean sartzen da bipilki; orela naimena almen soilla bezela dago gure baitan lenengoz, gero egillea legez jokatzen agertzeko; ta oyek ditugu naimenaren bi azpegi bereziak.

Baitezpadakoa zayo gizonari naimena erabiltzea, ta ez da ongi ulertzen naimen gabeko gizonik; inda geyago ala gutxiagokoa izan diteke naimena, gizon bakoitza nolakoa dan eraz, baña edonorengan agertzen da beti almen aundi ori, ta gauza txikiena egiteko edo burutzeko be, beafezkoena zayo beti edonola erabiltzea. O engatik bakoitzari bere bizian barna ari-izateko nai ta nayezkoa izango zayo ontaz edo artaz naimena erabiltzea. Eta gure baitan dugun gogo-bizia guztiz nabaria azaltzen zaigu garbienik, naimenaren bitartez.

Ñaimena izatearen egipena, ezta berez ez gauza ona ez eta txa a be; gizonak nola erabiltzen duen eraz agertuko da naiz margo betekoa naiz bestekoa; jakiña, gizona bera baita beti ona ala gaiztoa izatea, ta o engatik berak dagien guzia era berean berdin agertzen da. Ñaimen ona edo naimen txa a esatea entzuten da sal, baña ori esan dugunez ulertu beat' da.

Ñaimena beti bidea bezela agertzen zayo gizonari bere bizian barna ari-izateko, ta zeredozer egitean egunero erabiltzen du gizonak men ori nai duena burutu al-izateko. Oso aipaga iak dira Ludi ontan lan nabariak egitean yardun duten gizonak, beren naimen aundia jokoan erabiltzean, aurka sortzen zaizkien eragozpenak gaintzeko batik bat. Guzientzat bea -bea a izan zayo naimen goto a erabiltzea ta oren eske beren xedeak betetzea lortu dute azkenean, eta eziña izango litzayeke naimenik gabe ezer egitea. Argi ikus dezakegu, beraz, naimena izan eta erabiltzearen ga antzia; bai, eraginko a egitan bizian barna naimena, ta gizonarentzat ezinbestekoa dalarik nor ukatu? O ela agertzen da, benetan, gizonaren gogo-izaera betetzeko almen egokia; ta beste almen guziekin alkartuta, izaera ori ederto-nabari erazten du.

Bea -bea ezkoa zayo gizonari naimena izan eta erabiltzea, benetako gizona bezela bizi ta yarduteko; ulerkaitza oso naimenik gabeko gizona izatea. Abereak ere, nolabaizt, beren senaren neuñan ala nolako naimena be ba-dutela erakusten dute; noski beren gai-bizian baka ik azaltzen dana, guztiz zeda iturik duten bizi barnean. Eta gauzak dira soilki guztiz naimenik gabe agertzen diranak; zentzundunengan baka ik, neu i txiki naiz aundian izan diteke naimena, ta gizonaren baitan, eskerki, egokienik nabaritzeko.

Ñaimena, almena bada ere, ezta berez ari-izan, eta gizona da, bere aukean, erabilli dezakena, egoki ala ez egoki izan diteken norabidean; alan eta guzti, berarengandik nolarebait sortuta bezela, ba-dagoz onak ez diran agerakunak; kasketaldia, naikundea, naikia, gurari izkiak, apetak burukeria, giriñak, burkoikeria ta tankerak; guzjak itz batez naikeriak bezela ezagutu ditzakegunak, eta naikeria arau gabeko naimena bezela dalarik.

Beraz, naimena naikeria biurtuta age diteke, ('ela aldatuta; baña nola egin diteke aldakuntza ori?, beraz?, ala eragipenen batek jota? Eztirudi, almen bat izatean, o elakorik berez egin ditekena, ta bidezkotzat a dezakegu bitartekoa izan diteken zerbaitek eraginda biurtzen dala. Baña zer da edo zer izan diteke zerbait ori?, bearbada gizonaren jokerak soilik, eta azkenez gizona bera azal

diteke aldakuntza oren eragille baka a bezela, zer dagien oarturik ala oartzeke jokatzean.

Amaikatxo naikeriak gizakiaren baitan; alakotz, oso maiz agertu bear naimena aldatuta, gutxiago naimen goto a bezela yarduteko; eta naimen goto eta sendoa gizona ari-izateko bide egokienetakoa dalarik. Bai, gizonarentzat naimena bide bat dala aitortu bear, bere bitartez egipen aundi ta egokiak burutu al-izateko.

Ara nola dagoen garantzi aundia naimenean, ukatu ezin diteken ga antzia, gizonak ain egokiro ustiatu dezakena, ta orela dala geyenetan ateman ezpada ere, bere egipenetan gizonak ongjenik adierazten du, "nai dut" ala "eztut nai" esaten, naimenez beti yarduten duela. Eta ardurabakoa dana, naimenik gabe agertzen dana, duintasunik ezuela ere edonorentzat azaltzen zayo; oso aintzakotzat artzeke, alderantziz, naimen on eta aundiko gizona, beti goi-goyan jkustekoa dana.

Ba-dago bizia ta bizi zabala gizonaren baitan, eta bizi oren azpegi berezienetakoa naimena dugu ezpairik gabe, gizonaren izaera ongjenik nabaritzean, eta beste azpegi guztien artean, bere almenen multzoan, egokitasunez beterik ikusteko izanik.

Ñaimena gizakien ekitean agertzen da almen aundia bezela, geldirik iñoiz ez geratzeko, ekin eta ekin ari-izateko baño; orela gizonaren biziari zentzun aundia ere ematen dio, adiñonez zabal dedin eta norberarentzat eta besteen-tzat ere zitu eder eta ugari emateko. Ona jzan diteke, beraz, naimena ta onaren itu i, orela begira dezakegu, gizonaren ontasun ede enetakoa, ondorio egokiak jarion zaizkiolarik.

Atsegiña gjzonarentzat bere baitan o elako aberastasuna daukala oartzea, bere burua oso goratua bezela ikus-erazten diona; beti, noski, naimen onekoa baldin bada. Ajpaga ia dugu, benetan, gizonaren almen au, goruntz abiaturjk bizi ta ari-izateko, lerak menperatzeko ta beko zalekerietatjk azke bizi ta yarduteko.

**U estarazu'ta Andoni**





# EUSKERA DALA ETA LASTOA ASTINTZEN

"Juan de Vargas'en serbitzariak orrela egiten ornen zuan, bere nagusiak eskatutako garia eramaten zioenean. Alegia, urrituta gelditzen zitzaion ale-pilla, eta orduan berak, lastoa astindu eta lastoak gari ale ederra eman". Euskerarekin ari nintzan, eta emen alderantziz ote goazen, euskaldun kutsua ale-kaskar b<sub>1</sub>urtzeko arriskua, oso urrean dagoala ematen du. Ñaiz-eta "EUSKERAZAIÑTZA" aldizkarian gizon ikasiak ere idatzi, eta elizgizonak ere, Euskalerra ez ote degun maite bildur naiz. Alaere, ez gaitezen murgildu, bai-zik, eta zuzpeltu, irudiari baño gizadiari arreta geiago ematen diogula, beti gizona irudiaren aurretik dalako. Izkuntza edo euskera, ez dezagun biurtu dirubide bestela gureak egindu. Euskeraren arriskua biribilla litzake era artara, eta au tamalez tamalgarria da, Euskalerra, bekokiko izerdiarekin eta lana egiñaz da izan-dana orain arte. "Euskalduna gizatasunean ez-dute oraindik epaitu" esaera zaarra ornen-da, eta egon ziur euskaldunok ez-bagera aditzen, euskera dirubide txarra aterako dala tamalez, eta ori dana, Euskalerra ez-degulako maite; orrelaxe besterik gabe! Euskera erbesteko izkuntza eta oiturak irentste-ko zorian arkitzen da eta ori zer dala eta? Euskaldunok aldatuaz goazelako (euskaldun zentzua alegia). Ibilliko-gera lorategiak eta bitxiak jasotzen eta EUSKERAZAIÑTZEÑ, baña oriek antzu gertatuko dira Berri-Onarenb iragarpe-na elizamaren babesean onartzen ez bada.

Lurralde bakoitzak bere giro du, eta orrela bere duintasuna ere. Eta ori aintzat eduki bear degu begi berri dalako eta sakona alaere.

Orregaitik Euskalerra eta euskalduna elkarrekin Euskalerra eta euskalduna elkarrekin eta euskera Euskalerrari diogun maitasuna goratzeko, Izadiak duen errege nagusia degu gizakia eta era berean euskalduna eta bere izatea ere. Poztu bear genduke elkar sendi edo famili baten, gaurko euskeraren lorea biarko euskaldunaren ale bikaina izan dedin gure Euskalerrian. Oraindik emen aipatu gabe dedan sinismena, poz sortzaillea eta itxaropena, gure argi eta arnasa ditugula. Euskera soila, naiz eta ondo zaitu, lore polit bat bezela da: esate baterako, ortxe daukagu izkuntza aramearra ere, galtzeko arriskuan eta beg<sub>1</sub>ra, "diotenez, Jesus Ñazaretarrak berak mintzatu zuan izkuntza dala ori". Orregaitik arreta sakona bear diogu euskera eta gure Euskalerrari, eta bereziki euskaldunari baña ez det uste du giruz egin leikenik. Telebista, irratia, ikastola..., eta gaur egun or daude, baña ortik eta Euskalerra, euskera, eta euskalduna elkartzeko, aurrerago begiratu bearra dago, EUSKERAZAIÑTZA'ren askatasunak berak lotuko gaitu bestela. Begira, Euskalerra bere euskera eta baste..., kaiola polita dala uste badegu ere, ez-gera txoria bezela bere barrennean egoteko gauza (ni ez-beintzat, eta orrela, alegintzea ez litzake gutxi). Ja poz apur-bat arkitzen degun barrenan. Euskalerrari eskeintzeko.

**Benigno Madina**



# AETZEN USKARAS

## SUBJUNTIBOA

### NOR

### EDIN

#### Orela

ni nein	nain
yi yein	yain
gure dein	dain
gu giten	
zu ziten	
zek zitezten	ziezten
gaek diten	

#### Leena

ni nindein	nindain
yj yindein	yindain
gura zein	zain
gu ginditen	
zu zinditen	
zek zindizten	
gaek zitezten	

## SUBJUNTIBOA

### NOR NORI

	Orela	Iragana
ni yiri	nakitan, -nan	nindekitan, -nan
ni gari	nakion	nindakion
ni zuri	nakizun	nindakizun
ni zei	nakizien	nindakizien
ni gaei	nakien	nindakien

yi niri	yakidan	yindakidan
yi gari	yakion	yindakion
yi guri	yakigun	yindakigun
yi gaei	yakien	yindakien

gura niri	dakidan	zakidan
gura yiri	dakitan, -nan	zakitan, -nan
gura gari	dakion	zakion
gura guri	dakigun	zakigun
gura zuri	dakizun	zakizun
gura zeı	dakizien	zakizien
gura gaeı	dakıen	zakien

gu yiri	gitezkitan, -nan	gindezkitan, -nan
gu gari	gitezkion	gindezkion
gu zuri	gitezkizun	gindezkizun
gu zeı	gitezkizien	gindezkizien
gu gaeı	gitezkien	gindezkien

zu niri	zitezkitan	zindezkidan
zu gari	zitezkion	zindezkion
zu guri	zitezkigun	zindezkigun
zu gaeı	zitezkien	zindezkien

zek niri	zitezkidaten	zindezkidaten
zek gari	zitezkioten	zindezkioten
zek guri	zitezkiguten	zindezkiguten
zek gaeı	zitezkien	zindezkien

gaek niri	dazkidan	zazkidan
gaek yiri	dazkitan, -nan	zazkitan, -nan
gaek gari	dazkion	zazkion
gaek guri	dazkigun	zazkion
gaek zuri	dazkizun	zazkizun
gaek zeı	dazkizien	zazkizien
gaek gaeı	dazkien	zazkien

Baita: nekion, nindekion, dekgun, dekgizun... zekgun, zekidan, dezkidan, dezkion, dezkizien, zezkion, zezkizun...

## SUBJUNTIBOA

### NOR NORK

	Orela	Iragana	
ni yik	naztaaken, -naken		nindezaaken, -naken
ni garek	naztan	nindezan	
ni zuk	naztazun	nindezazun	
ni zek	naztazien	nindezazien	
ni gaek	naztaten	nindezaten	
yi nik	aztadan	yindezadan	
yi garek	aztan	yindezan	
yi guk	aztagun	yindezagun	
yi gaek	aztaten	yindezaten	
gura nik	dezadan	nezan	
gura yik	dezaan -nan	yezan	
gura gaek	dezan	zezan	
gura guk	dezagun	g;indezan	
gura zuk	dezazun	zindezan	
gura zek	dezazien	zindezaten	
gura gaek	dezaten	zezaten	
gu yik	gitzaan, -nan	gindezaan	
gu garek	gitzan	gindezen	
gu zuk	gitzazun	gindezazun	
gu zek	gitzazien	gindezazien	
gu gaek	gitzaten	gindezaten	
zu nik	zitzadan	zindezadan	
zu garek	zitzan	zindeien	
zu guk	zitzagun	zindezagun	
zu gaek	zitzaten	zindezaten	
zek nik	zitzatedan	zindezatedan	
zek garek	zitzaten	zindezaten	
zek guk	zitzategun	zindezategun	
zek gaek	zitzateen	zindezateen	
gaiek nik	ditzadan	nitzan	
gaiek yik	ditzaan	yitzan	
gaiek garek	ditzan	zitzan	
gaiek guk	ditzagun	g;indetzan	
gaiek zuk	ditzazun	zindetzan	
gaiek zek	ditzazien	zindetzaten	
gaiek gaek	ditzaten	zitzaten	

## **SUBJUNTIBOA**

### **NOR NORI NORK**

Orela

nik g. gari	dazodan
nik g. zuri	dazudan
nik g. zeï	daziedan
nik g. gaei	dazedan

<b>yik g. niri</b>	<b>daztaken, -nen</b>
yik g. gari	dazoken
yik g. guri	dazaguken, -nen
yik g. gaei	dazeken, -nen

<b>garek g. niri</b>	<b>daztan</b>
garek g. yiri	dazaaken, -naken
garek g. gari	dazon
garek g. guri	dazagun
garek g. zeï	dazazien
garek g. gaei	dazen

<b>guk g. yiri</b>	<b>dazaagun, -nagun</b>
guk g. gari	dazogun
guk g. zuri	dazazugun
guk g. zeï	dazaziegun
guk g. gaei	dazegun

<b>zuk g. niri</b>	<b>daztazien</b>
zek g. gari	dazozien
zek g. guri	dazaguzien
zek g. gaei	dazezien

<b>gaek g. niri</b>	<b>daztaten</b>
gaek g. yiri	daztaaten, -naten
gaek g. gari	dazoten
gaek g. guri	dazaguten
gaek g. zuri	dazazuten
gaek g. zeï	dazazieten
gaek g. gaei	dazeten

Anitza, -zki- atxikiz sortzen da: dazkizudan, dazkitan...

## **AALEZKOA**

### **NOR**

#### Orela

neike	ñeikek, ñeiken
yeike	
deike	xeikek, xeiken
geizke	geixkek, geixken
zeizke	
zeizkete	
deizke	
deizke	xeixkek, xeixken

#### Geroa

nindeike	nindeikek, n
yindeike	
leiteke	leitekek, n
gindeizke	gindeizkek, n
zindeizke	
zindeizkete	
leitezke	leitezkek, n

#### Iragana

nindeike  
yindeike  
zeiteke  
gindeizke  
zindeizke  
zindeizkete  
zeitezke

#### Aalezko Baldintza Urruna

banindei  
bayindei  
baledi  
bagindite  
bazindite  
bazindizte  
balite

	<b>Orela</b>		<b>fregaria</b>
ni yiri	nekitake, -nake		nindekitake, -nake
ni gari	nekioke		nindekioke
ni zuri	nekizuke		nindekizuke
ni zei	nekizjেকে		nindekizieke
ni gaei	nekieke		nindekieke
yi niri	yekidake		yindekidake
yi gari	yekioke		yindekioke
yi guri	yekiguke		yindekiguke
yi gaei	yekieke		yindekieke
gura niri	dekidake	zekidake	lekidake
gura yiri	dekitake	zekiake	lekiake
gura gari	dekioke	zekioke	lekioke
gura guri	dekiguke	zekiguke	lekiguke
gura zuri	dekizuke	zekizuke	lekizuke
gura zei	dekizieke	zekizieke	lekizieke
gura gaei	dekieke	zekieke	lekieke
gu yiri	gekiztake		gindezkiztake
gu gari	gezkioke		gindezkioke
gu zuri	gezkizuke		gindezkizuke
gu zei	gezkizieke	gindezkizieke	
gu gaei	gezkieke		gindezkieke
zu niri	zezkidake		zindezkidake
zu gari	zezkioke		zindezkioke
zu guri	zezkiguke		zindezkiguke
zu gaei	zezkieke		zindezkieke
zek niri	zezkidateke		zindezkidateke
zek gari	zezkioke		zindezkioke
zek guri	zezkiguteke		zindezkiguteke
zek gaei	zezkieteke		zindezkieteke
gaek niri	dezkidake	zezkidake	lezkidake
gaek yiri	dezkiake	zezkiake	lezkiake
gaek gari	dezkioke	zekioke	lezkioke
gaek guri	dezkiguke	zekiguke	lekiguke
gaek zuri	dezkizuke	zekizuke	lekizuke
gaek zei	dezkjziece	zezkizeke	lekizieke
gaek gaei	dezkieke	zekieke	lekieke

## AALEZKOA

### NOR NORI NORK

#### Orela

nik gari	dazoket
nik zuri	dazuket
nik zeï	dazieket
nik gaei	daieket
yik niri	daztakek, -n
yik gari	dazokek, -n
yik guri	dazagukek, -n
yik gaei	dazekek, -n
garek niri	daztaket
garek yiri	dazaake, -nake
garek gari	dazoke
garek guri	dazoke
garek guri	dazaguke
garek zuri	dazazuke
garek zeï	dazazieke
garek gaei	dazeke
guk gari	dazokegu
guk zuri	dazazukegu
guk zeï	dazaziekegu
guk gaei	dazekegu
zuk niri	daztakezu
zuk gari	dazokezu
zuk guri	dazagukezu
zuk gaei	dazekezu
zek niri	daztakezie
zek gari	dazokezie
zek guri	dazagukezie
zek gaei	dazekezie
gaek niri	daztakete
gaek garj	dazokete
gaek guri	dazagukete
gaek zuri	dazazukete
gaek zeï	dazaziekete
gaek gaei	dazekete



	<b>Orela</b>	<b>Iragana</b>
nik yi	yuket	yinduket
nik gura	dezaket	nauke
nik zu	zituzket	zindazket
nik zek	zituzketet	zindazketet
nik gaek	dezazket	nauzket
yik ni	nukek, -n	nindukek, -n
yik gura	dezakek, -n	yauke
yik gu	gituzkek, -n	ginduzkek, -n
yik gaek	dezazkek, -n	
garek ni	nuke	ninduke
garek yi	yuke	yinduke
garek gura	dezake	zauke
garek gu	gituzke	ginduzke
garek zu	zituzke	zinduzke
garek zek	zituzkete	zinduzkete
garek gaek	dezazke	zauzke
guk yi	yukegu	yinduket
<b>guk gura</b>	dezakegu	gindauke
<b>guk zu</b>	zitukegu	zinduzkegu
guk zek	zituzkegute	zinduzkegute
guk gaek	dezazkegu	zauzke
zuk ni	<b>nukezu</b>	nindukezu
<b>zuk gura</b>	<b>dezakezu</b>	zindauke
<b>zuk gu</b>	<b>gituzkezu</b>	gindauzkezu
zuk gaek	<b>dezazkezu</b>	zindauzke
zek ni	<b>nukezie</b>	nindukezie
zek gura	<b>dezakezie</b>	zindaukete
zek gu	<b>gituzkezie</b>	gindauzkezie
zek gaek	<b>dezazkezie</b>	zindauzkete
gaek ni	nukete	nindukete
gaek yi	yukete	yindukete
garek gura	dezakete	zaukete
garek gu	gituzkete	ginduzkete
gaek zu	zituzkete	zindauzkete
gaek zek	zituzketee	zinduzketee
gaek gaek	dezazkete	zauzkete

Baita: zouke, youke, gindouke, zouzke, zindouke, zindouzkete... zaket, zazket, zake, zazke, zakegu, zazkegu, zakezu, zazkezu, zakete, zazkete.

**Josu Cabodevilla**

# EUSKERAZAINTZA'ren ARAUDIA

**1'go araua:** EUSKERAZAINTZA, Euskeraren Erri-Akademia, ondorengo arauon agindura ibilliko dan Erakunde au, 1964'ko Gabonillaren 24'tik indarrean dirauan "Elkarte-Legea" deituaren legezko erabidearen babesera sartua dago.

**2'gn araua:** Au du bere elburu nagusia: Euskera, kondairatik dituan oiñarizko bere euskalki nagusietan zaintzea, bizi-eraztea, indartzea ta ikerketaz aberastea, Euskera batuagoa lortzearen billa erriarekin elkar-lanean.

Eta ortarako:

A.—Euskadi'n bizi dan guztiak, Euzkeraz jakiteko ta itzegiteko duan gizabidezko bete-bearra, Euskalerrri osoaren aurrean argiro azaltzen jarriko ditu bere ekintzak.

B.—Erki ta eskualde bakoitzean bertako Euskera jakitea bultzatuko du, aietako bakoitzean beste eskualdeetako Euskera ere ikastera eragiñez, au bai-da biderik egokiena Euskeraren egiazko bateratzea lortzeko.

D.—Euskerazko irakurketa-idazketak ikasten lagunduko dio errj euskaldunaren geiengoari, eta aldj berean gure izkuntza ikasteko erraztasunak eskeiñiko dizkie Euskadi'ko biztanle guztiei.

E.—Euskaldun erria da bere izkuntzaren egiazko irakasle ta zaintzaille. Ziurtasun ortaz jabeturik, erri orri eskatuko dio laguntza, Euskeraren muiña adierazten duten esaera zaar eta esaldi egokiak jasotzeko lanean.

E— Itz arrotzak bearrik gabe ta era ez-egokian barra-barra sartzearen aurka jokatu du, eta aldi berean izkuntzaren joskera ta jatortasuna zainduko ditu indar guztiz.

G.—Euskera irakasteko ikastaldiak antolatzen eta burutzen, eta Euskal-irakasle Tituludunak gertutzen, egiñaalak egingo ditu. Eta azterketak gaintitzen dituztenei, dagozkien gaitasun-agiriak eta tituluak emango dizkie. Gaitasuna lantzeko alor ontan, berriz, oiturazko irakasbideetaz gaiñera, oraingo aurrerapen eta gizarteko komunikabideetaz baliatuko da.

H.—Mailla guztietako irakaskintza-liburuak eta ikasketakoak idazten eta argitaratzen lan egingo duanez, gai bakoitzaren ikasiak diranekin artu-eman estuak izango ditu.

**3'gn araua:** Erakundearen legezko egoitza, Donosti'ko Getari kalean izango du, 21'gn zenbakian, bee-barruan.

**4' gn araua:** ESPARRUA: Erakunde onek bere ekintzak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa ta Nñaparroa erkietan burutuko ditu.

## Lan-Taldeak

**5'gn araua:** Izendaturiko elburuak ekintzara eramateko, bear ainbat Talde sortuko ditu Euskerazaintza'k, bakoitzak berari dagokion Erantzulea buru ta aalik geienak laguntzaille ditualarik.

**6'gn araua:** Lan-talde bakoitzak bere Erantzule ta laguntzailleen artetik aukeratuko ditu Lendakaria ta Idazkaria.

**7'gn araua:** Lan-talde guztiek astero naiz illero izango dituzte beren bille-rak, eta aietako arazoak, egitasmoak eta erabakiak Erakundearen Zuzendari-Batzordeari aurkeztuko dizkiote.

8'gn araua: Hlero izango du Euskerazaintza'k bere Batzar Orokorra, eta ber-tara joateko eskubidea izango dute Lan-taldeetako bazkide guztiek, bai Erantzule ta bai laguntzaille, azkenengo aukerabakirik gabeko itza dutelarik.

**9'gn araua:** Onako aukerak dira Lan-taldeak:

- a.- Euskeraren egoerari dagokion ikasketa-ikerketarako Taldea.
- b.- Mailla guztietarako ikaste-liburuak egiteko Taldea.
- d.- Izkuntzaren bateratze-taldea.
- e.- Euskal-idazleekiko arremant-taldea.
- f.- Euskal-Irakasleen gertuera-taldea.
- g.- Euskal-itzultzaileen Taldea.
- h.- Gizarteko komunikabideekiko taldea.
- i.- Diru-arazoetako Taldea.

Etorkizunak adieraziko du, Talde berriak sortzeko bearrik ba'dan,

**10'gn araua:** Ikerketa-taldea osotuko dutenak, izkuntzalariak izango dira (filologo ta linguista), eta Euskera bere adar, alor eta mailla guztietan ikertzea izango dute elburu, erri-izketa argitzekoan ager daitezkean ikerketa-bideak ontzat artuko dituztelarik beren lanerako,

## Egitura

**11'gn araua:** Euskal-izkuntzalari ta idazle ospetsuz, Lan-taldeetako Erantzule ta laguntzaillez osotua izango da EUSKERAZAIÑTZA, eta Euskeraren aldeko lanean trebeki ari izanak eta gerokoa ariko diranak ugari izango dira oorezkoen saillean.

**12'gn araua:** Euskera-alorrean jakitun diran eta Euskeraren aldeko lanean trebeki ari diranen artetik aukeratuak izango dira Lan-taldeetarako Erantzuleak.

**13'gn araua:** Euskeraz burutu dituzten lan baliotsuei mailla ori dagokienak izango dira EUSKERAZAIÑTZA Erakundeko laguntzaille.

**14'gn araua:** Lan eta egiñaal benetakoak jarriko dituzte Euskeraren alde Lan-taldeetako Erantzule ta laguntzailleek, eta Zuzendari-batzordearen iritzira, norbaitek bere egitekoa burutuko ez ba'lu, lan egin nai duan beste bat jar dezakete ordez.

## Zuzendari-Batzordea

**15'gn araua:** Araudi onen agindura eratua, arteztua ta antolatua izango da EUSKERAZAIÑTZA, eta bere Zuzendari-batzordea osotuko dutenak, Lendakaria, Lendakari-ordea, Idazkaria, Idazkari-ordea, Diruzaiña ta Liburutegi-zaiña izango dira.

16'gn araua: Auek dira Lendakariaren egitekoak:

a.- Zuzendari-batzordearen eta Batzar Orokorrer Buru izatea.

b.- Euskerazaintza'ren ordezkotza egilea edozeiñen eta legezko elkarteen aurrean, bai erri-serbitzukoetan bai bestetan.

d.- Erakundeko bazkide guztiei ikarketara ta ikerketara eragitea.

**17'gn araua:** Auek dira Idazkariaren egitekoak:

a.- EUSKERAZAIÑTZA batzarretara deitzea, eguneko gai-zerrenda ongi zeaztuta.

b.- Batzar eta billeretako batzar-agiria idaztea.

d.- Erakundearen urteroko ekintza ta lanen bilduma egitea.

e.- Erakundeak agintzen d;zkion ekintzak burutzea.

f.- Lan-taldeekin arremanak izatea ta aien langintza elkartzea.

18'gn araua: Auek dira Diruzaiñaren egitekoak:

a.- EUSKERAZAIÑTZA erakundearen diru ta ondasunak artzea ta erabiltzea.

b.- Diruen sarrera-irterak egunera eukitzea.

d.- Sarrera ta irtera guztien laburpen urtero egitea.

19'gn araua: Auek dira Liburutegi-zaiñaren egitekoak:

a.- Euskera gure izkuntza nolerebait ga; duten liburu ta idazkiak artzea, erostea ta egoki sailkatzea.

b.- EUSKERAZAIÑTZA erakundeko bazkideen l;buru ta liburuxkak, idazkiak, ikerketak, e.a. trukitzea gai bereko beste euskaldunen eta atzerritarren idazki ta lanak eskuratuz.

**20'gn araua:** Zuzendar;-batzorderako kargudunen autaketa, bazkideen arteko Batzar Ñagusi Berezian burutuko dute, autesleen irutatik bi autarkiren agindura. Irutatik bikoia lortu ezik, beriz jokatu dute autaketa, orduan geiengo soilla naikoa izango dalarik.

21'gn araua: Bi urtez iraungo dute kargudunek beren egink;zunean, eta berriz autatu aal izateko ez dago eragozpenik.

**22'gn araua:** Artezkaritzarako kargudunen autaketa aurretik, bearrezkoa da autagaien aurkezpena egitea, ain zuzen ere Batzar Ñagusi Berezia baiño bost egun leenago.

23'gn araua: Artezkaritzako kargudunen aldaketak eta berritzeak ere Batzar Ñagusi Berezian burutzeoak dira.

24'gn araua: Kargudunen aldi laburreko autaketak ere Batzar Ñagusi Berezian egitekoak dira kargu-berritze ta aldaketen era berean.

## **Batzar Nagusia**

25'gn araua: Bazkideen Batzar nagusiak, Oizkoak edo Arruntak eta Berezia izango dira.

**26'gn araua:** Araudi onen agindura Urtarrillaren lenengo larunbatez egingo du EUSKERAZAIÑTZA Erakundeak bere Batzar Ñagusi Arrunta, gai auek guztiak aztertzeo:

1.- Sarrera-irteren laburpena ta diru-egoera.

2.- Urte sartu-berrirako aurre-kontuak zeaztea.

3.- Zuzendari-Batzordearen egitasmoak eta eskeintzak.

4.- Bazkideek asmo ta eskeintzak.

5.- Galderak eta erantzunak.

27'gn araua: Aurreko arauan zeaturiko bezala ez dira Batzar Ñagusi guztiak, Bereziak izango dira beti.

**28'gn araua:** Aipaturiko Batzar Ñagusi Bereziak, batzekotan ere, Zuzendari-Batzordea deituta, eta bestela bazkideen euneko amarrek eskatuta, batuko dira.

**29'gn araua:** Batzar Ñagusiak izango dituan egiteko bereziak:

A.- Erakunde osoak eta batez ere Zuzendari- Batzordeko guztiek beren egitekoa burutu dezaten, ardura izatea.

B.- Artezkaritzako guztiengandik berri zeatzak jasotzea, Azkenengo Batzar Ñagusitik aurrerakoan beren egitekoa burutzeko egin dituztenak ikusteko.

D.- Erakundearen diru ta ondasunen ardura zeatza eramatea.

E.- Zuzendari-Batzordea izendatzea, Araudiari dagozkiokean aldaketak egitea, ondasunak erabiltzea ta besterenganatzea, Zuzendari-Batzordearen esanera bazkide berriak artzea ta bazkideak kanporatzea, eta Erakundea de

Gertaera auetarako, eta 1985'eko Lorailaren 26'ko 1.446'gn Aginduak bre 10, 3'ko arauan erabakiaren arauera, Batzar Ñagusi Berezian diran batzarkideen irutatik biko zatiak, naiz beren eskuz eta naiz besteren orde, onartzea da bearrezkoa.

## **Bazkideei dagozkienak**

**30'gn araua:** Eskubideko asko bazkide edo euskerazain osoak, legezko adiña ta beren buruaz baliatzeko aalmena dituztenak izan bakarrik izan daitezke.

**31'gn araua:** EUSKERAZAIÑTZA'n Bazkide berriak artzea, beste euskerazain bat edo bestek eskatuta izango da, eta Araudi ontakoak betetzeko itza emanda.

**32'gn araua:** Bazkide osoen egitekoetan bat, Erakundeari bere diru-bearretan laguntzea izango da, Zuzendarĳ-Batzordeak garai bakoitzean erabakiko duan neurrian.

Bazkide osoen eskubideak, berriz, arauzko billera ta Batzar Ñagusi guztietan itza ateratzea ta autarkia ematea dira.

**33'gn araua:** Bazkide-eskubideak galtzeko erak:

a.- Bakoitzak berak naita, Zuzendari-Batzordeari idatziz adieratzen dioenean.

b.- Araudi ontako bete-bearrak utzita dauzkanean, naiz Erakundeari ta bere izen onari kalte dagionean.

d.- Iltzen danean.

Bazkideak Euskerazaintza'tik kanporatzea, Batzar Ñagusi Bereziaren eskubidea da, 29'gn arauan dagoanez eta ango agindua aurrez beteta.

## **Ondarea**

**34'gn araua:** EUSKERAZAIÑTZA onek, sortzekoan, ez du iñolako ondarerik. Erakunde onek izango dituan ondasunak, bere bazkĳdeen urteroko emai-

tzetatik, beste edozein adiskideren eskupekoetatik, erri-agintarien eta beste elkarteen diru-laguntzetatik, eta Erakundeak antola ditzakean ekintza ta ospakizun ez-berdiñen emaitzetatik batuko ditu.

### **Aurrekontua**

**35'gn araua:** Urteko aurrekontuari asiera-unea jarritako kopurua, eun milla pezeta dira. Erakundearen bearrek geiagorik eskatu ezkeru, muga ori gainditu eziñik ez dago, Urteroko Batzar Ñagusiak erabaki bai-dezake, 1964'ko Gabonillaren 24'ko 191/1964 Legeak ontzat ematen duanez.

### **Deusezte**

**36'gn araua:** Erakunde au deusezte, Batzar Ñagusi Bereziak egin dezake Zuzendari-Batzordeak ala eskaturik eta batzarkideen irutatik biren autarkiek, naiz beren eskuz eta besteren orde, ala erabakitzen ba' du.

**37'gn araua:** Diru-kontuen garbitasuna egitean, eta zorrak ordaindu ondoren, zerbait geldituko ba'litz geigarri, Erruki-etxera eramatekoak da.

EUSKERAZAINTZA'k bere Batzar Ñagusi Berezjan onartu zuan Araudi au, Donosti'n 1979'ko Loraillaren 26'an.

Eta legez onarturik gelditu zan 1979'ko Azillaren 23'an.



Arbasoen-Izkuntza zaleak  
Jakintza Elkartea  
Erri Euskera

## **EUZKERA'RI BURUZKO ARGI-BIDEAK**

Gure Araudja'ren 2 gn. Atala bialtzen dizugu, gure asmo ta elburuak ikusi ditzazun

Elkarte onek, arbasoak utzi ziguten euzkera, Arana Goiri'tar Sabin'ek egindako ikasketen bidez, guregana iritxi zaigun eran, du oñafi. Ortaz, 1.896 gn. urtetik asiko gera, gure adirazpeoean, orduan argitaratu bai zan Sabin'en "Lecciones de ortografía del Euzkera Bizkaino" izeneko idaztia. Oraingo aldian, euzkaliztian agertu dan lanik aundienetakoa; R.M. Azkue jaunak "El libro de las 300 páginas de oro" izendatua.

Len ere euzkalari onak ba ziran, jakiña, baiña Arana Goiri'tar Sabin, aundienetakoa izanez gaiñera, euzkera garbitu ta euzkal idazkera sortu zan, bidezko idazkeran oñañtua.

Saiera onen ondoren, Euzkera'tzaz esandako zenbait gauza, aldian aldikoa, adierazjko dizkizugu.

**1979-6-7**

Karmele Goñi'ren idaz-lanetik bi atal berezi ditugu, ona:

"Agintezko ta Legezko idatziak gure izkuntzan egin aal izan ziran bezin laister, lenengo Euzko Jaurlaritza'ren Agintezko Aldizkarian, (Boletin Oficial) euzkeraz argitaratzea izan zan".

Geroztik, Euzko Batzar Nagusia (Consejo General Vasco) eratu zanean, guda bukatu ta onen eragozpenik gabe askoz eñezagoa zala ta, gogo biziz itxaron genun Batzar onen Agintezko Aldizkaria, baiña au azaldu zanean, gure itxaropena etsipen biurtu zitzaigun.

80-12-25

**Berezi degun u engo zatian, Intxausti'tar Jesus'ek (lenengo Euzko Jaurlaritza'ren itzultzailea) Koldo Lizundja'rekin izan zun ikustaldiko erantzuerak gañantzitsuena jasoko degu:**

"Gure au eneko lanerako irizpidea, sort-e oen billaketa izan zan, Agiriak euzkal sena izan zezaten. Benetan, gure itzulpenak e ez irakurtzen zirala derizkiot. Euzkal joskera galtzeko afixkuan arkitzen da gure izkuntza. Erderatik datozen itz asko erabiltzen dira. Gañantzitsuena, kaltegañena auxe da: izkuntza bere gogorik gabe, senarik gabe egiten ari dirala. Euzkera'ren efoan sustraitutako Euzkera sendotu bear degu".

1987 - Jo aila

**Euzko Alkartasuna'ko "Libro de Ponencias Congreso Constituyente"tik artua:**

5-4-2 atalean: "Criterios para una política lingüística" 4 gn. zatian au dio:

"El euskera es una lengua única aunque se componga de diversos dialectos, variedades y registros. Es función de la planificación lingüística, la estructuración, especialización y jerarquización de todos ellos que constituyen elementos necesarios y fecundos de la lengua común. Es más, el euskera no podrá mantener su unidad, si no fuera capaz de adaptarse a los diferentes entornos y ámbitos sociales e individuales, es decir, si no se plasmase en registros específicos para la familia el esparcimiento, el trabajo, el aprendizaje y la enseñanza".

5-4-2 atalean "La política lingüística requiere..." 4 gn. zatian onela dio:

"Recursos lingüísticos: la adecuación de la lengua a las tareas sociales, científicas y técnicas, que la sociedad moderna comparte, exigen la fijación de un modelo unificado de la lengua escrita. Euzko Alkartasuna apoya la labor unificadora de Euskaltzaindia y prestará su colaboración, para que este proceso inacabado de unificación se realice dentro de un espíritu de respeto a las formas dialectas, siempre enriquecedoras".

5-4-3 atalean. "Política sectorial" 5 gn. zatian onela dio:

"El tercer objetivo, el modelo normalmente empleado ha sido el euskera unificado y en ocasiones el haberlo adoptado como modelo único, olvidando el usual del lugar, ha tenido consecuencias desfavorables para la labor de euskaldunización y alfabetización. La escuela debe servir para partiendo del uso y desarrollo académico del modelo usual, allá donde existe, que todo euskaldun al término de la enseñanza obligatoria conozca y domine el modelo unificado, contribuyendo así a la unificación y normalización del idioma".

1987-Uztajla - 3, 4, 5



"Ñacionalismo para el 2.000" izeneko idaztian, 75 gn. ofialdean, (Euzkera) 3 gn. zatian "Criterios Generales" eta 3, lenengo atalean, gañantzi aundiko gauzak azaltzen dira; luzeegia danez, ezin degu emen osorik agertu, baiña au adierazteko bidea ematen digu: Euzkera galtzerik nai ez ba degu, Euzkalkiak bizirik eutsi bear dġtugula alegia.

Oġa, 76 gn. ofialdean, 8 gn. zatian azaltzen dena:

"Hay que cuidar y vigorizar en su territorio de Implantación a cada uno de los euskalkis. Aceptar la vía del euskera unificado, no significa, en modo alguno, la pérdida o el debilitamiento dialectal. Los euskalkis deben mantenerse plenamente vivos y para que ésto que todos reconocemos, no se reduzca a una mera declaración testimonial, se debe contemplar con aprecio, el uso natural, sin complejos, de los dialectos, cada uno de ellos en su ámbito de vigencia, tanto en las relaciones cotidianas ordinarias, como en las oficiales".

### **1987-9-1**

Luis Villasante jaunak DV'ri esandakoa:

"El proceso de unificación de la lengua literaria, no ha pretendido en ningún momento, relegar el valor de los dialectos".

### **1989-10-1**

Gaur Express'en Krutwig jaunaren itz auek agertu ziran:

"El batua no sirve para nada" (?)

### **1989-10-1**

DEIA izpafingian, Luis Aranbeġi'ren "Ahora lo auténticamente progre es hablar vizcaino" izeneko idaz-lana argitaratu zuten.

Au, benetan adierazgafia dala derizkiogu.

### **90-9-30**

Federico Krutwig'ek, DV.'kin izandako elkar-izketan, au esan zun:

"Ese famoso batua es un desastre, es una cosa negativa, la lengua no se hace así sino por tradición literaria, con los grandes literatos y no con cuatro pelagatos que procesan. Para mí el proceso de euskaldunización ha fracasado, ya que la filosofía con que se ha seguido, ha sido populachera; que lo hable mucha gente, aunque sea poco y mal".

### **90-10-15**

Lekuona'tar Garikoitz-ek, Diario Vasco'ko "Cartas al Director" atalean idatzia:

"Las conclusiones que obtengo son las siguientes:

Por una parte, se está demostrando la escasa riqueza lingüística del euzkera (para regocijo de sus detractores) abocandola a hacer recurrir de

forma continuada a palabras ajenas a su propia lengua, sobre todo del castellano.

Por otra parte, se infrautilizan, inexplicablemente, palabras y expresiones totalmente euzkéricas, utilizando términos castellanos en base a una pretendida modernidad o internacionalización de los mismos.

Como consecuencia de todo ello entiendo que, el nivel lingüístico del euzkera, ha quedado relegado a un simple dialecto regional pobre en recursos y dependiente de otras lenguas.

Se puede admitir, con reservas, la utilización de palabras realmente internacionalizadas, generalmente tecnicismos, que en euzkera serían difíciles de interpretar, aunque no imposible, pero en otras en detrimento de palabras euzkéricas.

### **90-12-16**

Diario Vasco'ko "Cartas al Director" atalean, Carlos Amoroto jaunak au dio:

"Además de antigua es hermosa, difícil, absolutamente autóctona, sin parentescos con casi ningún de las que hoy se hablan en el mundo.

Por eso quedan fuera de él buena parte de palabras que han ido surgiendo al compás del progreso humano. Y por consiguiente se impone un trabajo serio de euskaldunización, de rejuvenecimiento idiomático, de análisis etimológico, de creación de "vocablos extraídos de raíces netamente euzkéricas".

Tenemos en nuestra tierra grandes eruditos e ilustres estudiosos de su lengua, capaces de llevar a cabo este trabajo. Pero su campo ha sido invadida por una legión de analfabetos advenedizos que, con más osadía que erudición, están haciendo, justamente, lo contrario.

Ños quieren inculcar, como decía en mi anterior carta, un euzkera basado en el facilón y cómodo sistema de adoptar vocablos de terminología castellana, previamente retocados: Alternatiba, Kooperatiba, aprobetxatu, Konzentratu, Aktibitate, publikoa, analfabetuak...

Ante la imposibilidad, al menos aparente, de los organismos competentes (?) que deberían velar por su pureza.

Intentemos la tarea, difícil hoy, de cortar el paso a los "erderismos", porque son como las termitas; una vez dentro su labor es demoledora".

### **1991-2-6**

DEIA, Rosa Miren Pagola'k u engo au dio:

"El euzkera vizcaíno, como dialecto, está sufriendo una lamentable regresión que hay que evitar si no queremos que se pierda irremediablemente".

EUZKERA arazoaz idatzi duten idazle zerenda, luzeegia da ta aspertu nai ez zaitugunez, uéngorako utziko degu.

Euzkerari buruzko azalpen onen ondoren, ona galdera batzuek:

Ez al zenezateke bizkortu, zabaldu, 1920 ngo. Lotazilla'n, Euskaltzaindia'k, ao batez onartua izan zan, Arana Goiri'tar Sabin'ek "Lecciones de ortografía del Euzkera Bizkaino" izeneko idaztian eragin zun EUZKERA?

2.<sup>a</sup>— "Nacionalismo 2.000" idaztitik jasoa:

"Los euskaldunes, en nuestra voluntad de asegurar el futuro de la lengua, tenemos que otorgar al euskera hablado, proveniente del entorno familiar y a todas sus características de espontaneidad, la importancia y la dimensión convenientes, porque en este ambiente se cultiva el euskera más genuino y expresivo".

EA'ren, "Ponencias Congreso Constituyente" idaztian, 5, 4 atalean dionez, euzkalkiak gogoan dituzte. Ala bear ere, berak baitira euzkeraren oña'.

3.<sup>a</sup>- Ain oraingoak diran izadi-aldeko esaerak (términos ecologistas) erabiliat, euzkera zikintzen duten erderakadak ez al ditezke kendu, onela euzkera garbituaz?

Zalantzarik izan ezkeru, jo guregana, pozik emango dizuegu gure laguntza.

"Euskerazaintza" ere or dezute, Euzkera'ri buruzko aolkuak emateko.

Zuen esku dan gaya ez izan aien, bere euzkalkia besterik erabiltzen ez dunak, lan-tokia izateko eskubidea izan dezan, zerbait egin al zenezateke?

5.<sup>a</sup>— Era guzietarako izpalingietara, iragarkiak e.a. bialtzen dituzutenean, batzuek bederik gipuzkeraz eta bizkayeraz izatea eskatzen dizuegu.

E.G.A. ageria eskuratzeko, gipuzkeraz eta bizkayeraz gertu diranak ere onartuak izan ditezten, alegiñak egin.

7.<sup>a</sup>- Argitu batía dan "Jakintsuen Euzkal Iztegia"n, zabalkundean au dio:

"Han tenido que pasar casi cien años para acabar esta magna obra, que va a permitir consultar todos los euskeras - incluido el batua—".

Iztegi onek ez digu on askorik egingo, euzkalkiak sendotzeko alegin guzia egiten ez ba'degu.

Euzkera'ri buruzko argi-bide au azalduaz, "Arbasoen-Izkuntza-Zaleak" Elkartekoa'k eskatzen degunaren laburpena au da:

a) Jaurlaritzak, arazo guzietan, Euzkalkiak onartu ditzala.

b) Eii Euzkera (Lu alde bakoitzean bere Euzkalkia) irakasten dutenak, laguntza izan dezatela.

d) "Escuela Oficial de Idiomas"en, edozein euzkalki aurkezten dutenak, onartuak izan ditezela.

e) Arauak eman, erderakadak utziaz, itzak, euzkal sustrayetatik sortzeko, len egiten zuten bezela.

Gure eskaerak aztertu eta ondoren, euzkalki-euzkera sendotzeko alegiña egingo dezutela, itxaro degu, Euzkalkiak galtzen utziko ba'genitu, EUZKERA il egingo bai zaigu. Orduan, au gertatu baiño len garaiz ba'gabiltza beñepein, Aragon'en, Valle da Anso'n artu zuten erabakia artu bea a izango degu (Deia 91-2-4 lurgi Sarara idatz-lanean), auxe da:

"Han decidido no esperar a que el último ansotano parlante tuviera que levantar acta de defunción de su idioma. Como tuvo que hacerlo José Estornés Lasa con el Erronkariko Euskara".

Au gertatu ez dedin, "Euzkera bai, baiña Euzkalki Euzkera", gure esaldia, egi biurtu dezagun.



# **EUZKERA GARBITZEN** **(Campana contra la** **erderización del Euzkera)**

<b>GAZTELERA</b>	<b>BATUA</b>	<b>EUZKERA</b>
Datos generales de identificación	Identifikazio datu orokorrak	Ezaugarri orokorrak
Descripción de la muestra	Laginaren deskribapena	Erakuskin zeaztasuna
Sexo	Sexua	Kuntzea
Estado civil	Egoera zibila	Gizarte egoera
Médico de cabecera	Etxeko medikua	Sendiko sendagillea
Pediatría	Pediatria	Aur-sendakintza
Médico de guardia	Guardiako medikua	Larrialdi-sendagillea
Centros Hospitalarios	Ospitaleak	Gaxotetxeak
Especialidades	Espezialitateak	Berezitasunak
Servicio médico de guardia	Goardiako medikuntza zerbitzua	Larrialdietako sendakintza
Practicante de guardia	Larrialdietako praktikariak	Larrialdejtako sendagille-ordekoa
Servicio de Asistencia sanitaria	Osasun Laguntza Serbitzua	Osabide-sendabide lagungarria
Gerente	Gerentea	Arduradun-zuzendari
Cupón (ciegos)	Kupoia	Itxu-txartela
Teléfono	Telefonoak	Urrutizkiñak
Farmacja	Farmazia-Botika	Sendakitegi-Osakitegi
Departamento de cultura y turismo	Kultura eta turismo Saĵla	Itxas-jakintza ta txangoketa saila
Música	Musika	Eresia
Teatro	Antzerkia	Antzerkia
Artes plásticas	Arte plastikoak	Ederritzia

Biblioteca	Liburutegi	Idazitegi
Archivos y Museos	Artxibategi eta Museoak	Jasoketa ta Erakustetxeak Erakustokiak
Turismo y Deportes	Turismo Kirolak	Ikus-ibilketa ta kirolak
Trabajos de investigación sobre Patrimonio Histórico Artístico	Ondare Historiko Artistikoari buruzko ikerlanak	Ederti-edesti ondasun ikerlanak
<b>Investigaciones sobre el libro</b>	<b>Liburuari buruzko ikerlanak</b>	<b>Idaztiari buruzko ikerketak</b>
Turismo y Deportes	Turismo Kirolak	Ikus-ibilketa -txangoketa ta kirolak
Facultad de Filología, Geografía e Historia	Filologi, Geografi eta Histori Fakultatea	Izkuntziziti, Lutelesti ta Edesti Ikas-sailla
Facultad de Filosofía y Ciencias de la Educación	Filosofi eta Hezkuntz Zientzien Fakultatea	Zuuriziti-(oldoziziti) Eziketa Ikas-sailla
Conservatorio Superior de Música de San Sebastián	Donostiako musika udal-kontserbatorio nagusia	Donosti'ko Eres-ikastetxe Ñagusia
Contratación directa Comedor	Kontratazio zuzena Jangela	<b>Zuzeneko lan-ematea</b> <b>Jangela - Jantokia</b>
<b>Pueden pasar por el Colegio para dar los nombres cuando lo deseen</b>	<b>Izenak emateko ikstetxetik ahal duzunean pasa zaitezteke</b>	Ñai dezunean ikastetxeratu zaiteke izen ematera
<b>Otras actividades</b>	Beste ekintza batzu	<b>Beste ekintzak</b>
Provincia	Probintzia	Erkia
Municipio	Udalerría	Udal-erría
Entidad colectiva	Entitate kolektiboa	Bazkun, Bazkintza, Batzar
Entidad singular	Entitate singularra	Berarizko Bazkuna
Plaza	Plaza	Enparantza
Carretera	Errepide	Bide-zabala
Escalera	Eskailera	<b>Zurubia, Zurgua</b>
Piso o planta	Planta edo Pisua	Etxe bízitza (bízitza)
Puerta	Atea	Atea

# ERDERAKADAK

— Gabriel Aresti'ren izkera mordoilloa bere "olerkietan":

Jaungoiko ona eida justua

Artezidadea bera

Amodio utsa, miserikordia

Maitasunezko platera...

Zeu zaraz Jaungoiko

Ñi gizon pobrea

Zeu zaraz egillea

Ñi kreaturea

Zeu juezik artezena

Ñi kulpa bagea,..

(Uste dogu naikoa dala)

(Ziur gagoz orj irakurrita gero Paulin'ek ondorengo itzak ez ebazala idatziko:

"EDERRA ZARA EUZKERA ZARRA

ARGIZKO GARDEÑTASUÑEZ

IZARREEÑ URREA DAROAZU

EUSKALDUÑEÑ MAITASUÑEZ")

—Behinbehineko Irakasle Titularen Kontratuak adjudikatzeko Lehiaketa Publikoa.

(Euskal Herriko Unibertsitatea. DEIA'n 1991'ko Dagonillaren

4'an).

—Kontserbadoren Estatu Kolpea SESBen.

("Egunkaria'n 91'ko Dagonillaren 20-an).

— Gran Via, Museo Plaza, San Pedro Plaza, Aireportua... (Geldi-tokien izenak Bilbao'tik Sondika'ko egazkin-zelaira doazen J.M. Vigiola'ren jene-belbilletan).

—Euskal Telebista'k (Ikustirratia'k) bear ditu: "C" Erredaktorea:

2 Operadorea,

Laguntzaille Teknjoa.

(DEIA'n 1991'ko Uztailaren 2'an).

## Banku Iztegia (Jarraipena)

ERDERA

Protestar una Letra

Protesto

Registro Mercantil

Regularizar

Letra de Resaca

Seguro de Cambio

"EUSKERA"

Letra bat Protestatu

Protesto

Merkatal Erregistru

Erregular(tu)

Letra Errezaka

Gambio Aseguro

ERDERA	"EUSKERA"
Suspensjón de Pagos	Pagu Kentze
Titulo	Titulua
Titulo Informativo	Informagarri Titulua
Valores	Baloreak

Bilbao'ko ondo rengo kaleen izenak:

EUSKERAZ	ERDERAZ
Jardineta Kalea	Calle Jardines
Arenal Kalea	Calle Arenal

—Gipuzkoa'ko Diputazioko Gobernu Kontseiluak.  
(Españako Irrati Nazionalak 1991-ko Dagonillaren 27-an).

—Bilbao'n, SIMAGO Salost-uria'ren salgaien izen batzuk:

"EUSKERA" (Batua)	ERDERA
Esne Kondentsada	Leche Condensada
Postrek	Postres
Opil	Bolleria
Mermeladak	Mermeladas
Olibak	Aceitunas
Tomatek	Tomates
Zopak	Sopas
Freskagarriak	Refrescos
Pan Tostado	Pan Tostado
Gailleta	Galletas
Plater Gertuk	Platos Preparados
Joko Kafe	Juegos Cafe
Sukalde Pote	Botes de Cocina
Eskol Gaja	Material Escolar
Koaderno	Cuadernos
Higieniko Paper	Papel Higiénico
Gurdik Eroske	Carros Compra
Electrotes	Pequeños Electrodomésticos
Espezierok	Espaceros
Algodon	Algodon

# EUSKAL SENIK EZ DAIGUN GALDU

Gero ta sarriago asi gara euskal zelaian, ez euskera aldetik, ez bear dan zentzutik ez eta inguruak eskatzen dauan giroari begira aidetasun txikiarik dauken esaerak zabaltzen.

Ikusiaz begiak lanbrotu eta entzunaz belarrietan mjin emoten dabenak.

Asko izan dira, oraintsu ertzain baten il-txartelean agertzen zan esaera batek zer adierazi nai ete ebanka ibili diranak.

Adiskide batek esaten eustan naiago leukela orrelako astakeriak sarriago agertzea, jendea obeto konturatuko litzakelako euskera jatorretik gaur sartu nai dan euskerara zelako bitarte itsu, zital eta indarkeri menpekoa dagon.

Txarraena da euskal arduradun eta begirale izan bear litzakezan erakunde batzuk orrelako nabarmenkeri batek minduta itxi dauzala jakifnarren be, or izten dabela gauza, bertan bera obeto eta lenago aztuko dala-ta.

Zeatz-meatz, besteen artean gauza au da: KISKALGARRI KAPELA, illetetan oiturazko dan erderazko "capilla ardiente"ren kidekotzat edo euskerakotzat agertu zala.

Ez dakit inor etorri ete leiteken idazle zarrak esaera ori erabili ebela esaten.

Ez da zarra Kintana eta arek "kapera izeki" agertzen dau bere Euskal Hiztegi modernoan "capilla ardiente"ren esanordetzat.

Azken baten, bata eta bestea esaera orreri erregarri usaiña emon nairik.

Onelakoetan asko izaten dira itaunka etorten diranak: zu zeuk zelan esango zenduke ba?

Ñi konturatzen naz euskaldunok ez dogula adierazpen onen zeaztasunik, baiña bai argia berba asko erabilten dala illetetan.

Argi-egile deitzen jakoe illeta-buru joaten d;ran emakumeei.

Argitarako, argitako, eskintzen dan ofrenda.

Gure oituretan lotugarri eta neketsu gertatzen ziran eleizkizun askotako illobietako ("sepulturetako") argizai-ol eta kandelak biztu bearreko egunak.

Argi-egunak deitzen eutsezan sepulturetara joan bearrezko egun orrei. Illen oroimenak bigunduaren, askotan ia eroan eziñiko loturak.

Eta ze alde dago il-barri dan baten gorpua argi artean erakustetik, gero lur azpian dagola ipinten diran bere omenezko argietara?

Batera edo bestera, argi omena.

Eleizak berak ez al dau gogoratzen: Betiko argiak argi begie... Betiko argi zabalean zure argiak argi ditzan... eta abar?

Eta zegaitik deitu ez il barria dagon gelari, argi-gela edo argi-etxea?

Guk ez daukagu zetan itzez-itz jarraitu bear beste izkuntzei, batez be guk oituraz emoten dakigun zentzuz ez ba datoz. Eta argian oññarrituta argi-gela nai ez ba da be, or dagoz baste ainbat esaera egoki litzakezanak eta inor arrituko ez leukenak:

Gorpu-etxea.

Gorpu-gela.

Gorpu-bela.

Illeta-gela.



Dolu-etxea.

Agur-gela, eta beste ainbat, kezka eta ardura barik erabili eta onartu leikezanak:

Baiña gauza bakoitzari berea emonda.

Ñik autortzen dot ez nazala izkuntzalari, idazle izanarren, baiña oraindik ez dot galdu euskal senik, eta ez daidala galdu be Jaunak deitu arte, eta ez dai-tela iñor ausartu nire gorpua kiskalgarri kapelatik ataraten, argi gelatik betiko argi biderako asmotan baiño.

A. Zubikarai

# ELBIRE ZIPITRIA LEIAKETA. 1991

## OLERKIAK

DEBA'n, 1991'ko Orrillaren 25'ean, Arrinda'tar Anes, Zubikarai'tar Augustin, Olazaritar Martin, Onaindia'tar Jagoba eta Gaztañaga'tar Jesus jaunak, "ELBIRE AÑDEREÑOIA VII" Olerki sariketara aurkeztutako lanen epaillizendatuak izan ziranak eta Kortajarena'tar Andoni idazkari bezala, Deba'ko Parrokiko areto batean bildurik, alde aurrez eman zitzaizkien aipatutako leiaketara aurkeztu ziran olerki-lanak aztertu ondoren, sariak era ontan banatzea erabakj dute.

1'go Saria, 40.000 peztakin saritua, **Zazpi izarrak** izenez aurkeztua, Ugarte'tar Martin idatzia.

2'gn Saria, 30.000 peztakin saritua, **Bion aterpean** izenez aurkeztua, Beloki'tar Agustin idatzia.

3'gn Saria, 25.000 peztakin saritua, **Udaberria amesten** izenez aurkeztua, Urzelai'tar Gorka idatzia.

4'gn Saria, 20.000 peztakin saritua, **Nire amari** izenez aurkeztua, Esnaola'tar Anastasi idatzia.

Eta gertatutakoen aitormen-agiri bezala aztertzaileek agiri au izenpetzen dute epaiketa bukatu ondoren.

# ZAZPI IZARRAK (Edo, zazpi auntzen ipuia)

## Lenengo Saria

Urril leneko gau oskarbian,  
etxe-aurreko exertokian,  
begiek gora jasoaz;  
aitonatxo bat ipui kontari,  
belaun banatan billobetxo bi;  
onek esana eioaz.

Ontan, aitonak bi aurtxoeri,  
beazkeiñuka gain sapaiari:

Ara an, joanaz Zeru-ertzean,  
ZAZPI IZARRAK moltxo batean;  
"Bostoilloeri" ondorean...  
Gurditxo baten kera arturik,  
auntz taldetxo bat ornen delarik;  
auntz-zaiñaren zigorpean.

—Auntzak, aitona... Auntzak an  
goian...?

Aurrek fiakaitz, parre-zurrian

Bai, begin batez, akerra sei  
auntzekin,  
sarobitik igesi joan ornen.  
Ta, auntz-zaiña eskuan zigorrakin,  
arin-arinka auntzen ondoren.

Eun legua bide begi-urraka,  
auntz igeskoien oiñatzetara;  
eta ler egñiñaren erronka,  
Jainko Aitari Zeruetara:

"Jainko gosebera,  
jan idak zazpirak,  
larru eta guzi...  
Zazpi gora-beera;  
kortan ba-zeuzkiat,  
zazpi bider zazpi!"

Ta txint batera, zazpi izardun  
guardiarekin itzaia;  
Zerutik jetxi, ta jaso ornen,  
zazpi auntz eta auntz-zaia.

Eta geroztik joanaz doatzik,  
izar banatan direla;  
elkargandiko esj-tartea,  
arrikada bat dutela...

Kirrinkaz joan da joan,  
gurdi ezaguna;  
gidari delarik,  
aker adarduna;  
ondoren "Bekeke"  
eskurakoi zena;-  
"Mazpil" irugarren,  
begi bakarduna;-  
taldetik seigarren,  
"Iji" girgilduna;  
azken muturrean,  
"Gilbor" motosduna...

Ta, denen atzean,  
izar-il batean;  
utsean-putzean  
autz-zain zigorduna...

Ugarte'tar Martin

# URGELDIAN

Itxaropenez betea  
ederra zan goizaldea...!  
Arima goian  
abesten joian.  
Aintza goreneko unea  
poz-atsegijña neurea...!

Aren begi-nini eztiak  
ur-loan bide geldiak  
niri begira  
biotz-pilpira,  
ariman izar andiak  
krisaillu bizi maitiak.

Urgeldi baten ertzetan  
olantxe mintzatu yatan  
abots eztsuz  
niri laztanduz:  
"Alde eiteko ordu larritan  
biotza yabill antzitan".

Illuntze bateko altzoan  
or legez urgeldi-ondoan:  
"Erdi nigana  
biotz-lasztana",  
Baiña iñor ez nire alboan,  
dana isilik gau-lanbroan.

Ordudanik arrats oro  
deika nago itsu ta zoro:  
"Esan zergaitik  
orren isillik...!  
Urgeldi-amesak gozoro,  
jtzzi nauala betjoro...

Bein da barriz urgeldian  
dei dagoiotsi-etsian:  
"Ñon ete zara  
zu nire izarra..."  
Baiña alboko zabalduan  
dana isillik arrastian.

Ur oztiñetako abia,  
bera ba'letor, maitia...!  
esaiozu arren,  
ez nagola emen,  
banazala antzi urrutia,  
ildako ahots izutia...

Ez nau idoroko ertzean,  
baiña ni ikusi naiean,  
zure ur garbitan  
ames gelditan,  
banakuske bizi antzean  
eguna ostentzen danean...

